



# hariak

2016ko abendua

Recreando la educación emancipadora



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin  
lanari hay alternativas begirada konprometituak  
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía



hariak  
ehunduz

Argitalpen honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) babesa izan du, honako proiektu honen markoan *Hariak ehunduz. Unibertsitatean hezkuntza kritiko eta emantzipatzailea pixkanaka gehitzeko estrategia, tresnak eta prestakuntza. Topaketa gizarteko eta hezkuntzako eragileekin* (2015). Testuen edukia Hegoaren erantzukizunpekoa da, eta ez dute nahitaz GLEAren iritzia islatzen.

#### Argitaratze kontseilua:

Inmaculada Cabello Ruiz

Juanjo Celorio Díaz

Sandra Dema Moreno

Alejandra Boni Aristizabal

Joseba Sainz de Murieta Mangado

Gema Celorio Díaz

Amaia del Río Martínez

---

Lege-gordailua: BI-1805-2016


Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Peter McLarenen egindako elkarrizketaren itzultzailea:

Robert Curwen

Euskarazko itzulpena: Labayru Fundazioa

Azaleko argazkia:

Joseba Sainz de Murieta 

(Marie Toure, Tirante plataformako "Trás La Frontera" antzerki-ikuskizuneko dantzari eta aktorea)

---

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da, eta horren lehengaia baso-kudeaketa iraunkorraren bitartez eskuratu da.

---

Zure iritzia interesatzen zaigu.

Galdetegi labur honi erantzutea eskertuko genizuke.  
<http://hariakhegoa.limequery.com/622675?lang=eu>

#### Finantzatzailea:



#### Argitaratzailea:



UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxe: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopia, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

# aurkibidea

2

## aurkezpena

3

## editoriala

Etorkizunak ahalduntzea, eraldaketarako subjektuak hezten  
*Juanjo Celorio Díaz*

4

## sakonean

Hezkuntza emantzipatzailea: zer berri?  
*Lucas Platero Méndez, Amaia del Río Martínez eta Gema Celorio Díaz*

12

## solasean

Pedagogia kritikoak etorkizun emantzipatzaile berrietarako  
*Peter McLaren*

22

## ekin lanari

Martxoaren 3ko Gasteizko biktimen elkarte, iragana eta etorkizuna  
*Juan Ibarondo Portilla*

Eskubide sozialen gutuna, batzen duen esperientzia  
*EH Eskubide Sozialen Kartako Koordinadora Nazionala*

*Zabaldi*: elkarlanean eraikitako espazio zabala  
*Begoña Zabala González*

Emakume guztiok aske izan arte: desberdintasunetan oinarritutako artikulazio esperientzia  
*Itziar Gandarias Goikoetxea*

30

## begirada konprometituak

**zinema/dokumentalak** Pride • No estamos solos

**argitalpenak** Construir otra hegemonía del poder • Fortunas del feminismo

**erakundeak** Black Lives Matter • Sim Romi

**ezinbesteko agenda** La Vía Campesinaren Nazioarteko VII. Biltzarra •

Garapenerako Hezkuntzako Nazioarteko II. Biltzarra, Latinoamerikako ikuspegitik,  
"Bizitzarako lurraldeak eta etikak"

34

## matxino artean

I tu, sols tu  
*el Diluvi*



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin  
lanari hay alternativas begirada konprometituak  
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía



# aurkezpena

**haria**k Recreando la educación emancipadora. Proiektu berri bati ekingo diogu Hegoan, subjektu politikoaren eraikuntzari buruzko lehenengo ale honekin. Hain zuzen ere, pentsamendua zabaltzeko eta hezkuntza kritikoaren teoria eta praktikarako esparruak sortzeko helburua duen aldizkaria jarri dugu abian. Hezkuntza taldeak abiatutako ekimena izan bada ere, globalizazio menderatzaileari aurre egiteko aldaketa kulturala sortu behar dela oinarri hartzen duen ideia inguruan lan egiten duten –eta lan egiten jarraitzen duten– pertsona guztien nahiak eta ilusioak biltzen ditu.

Era askotako krisien testuinguru honetan, ezinbestekoa iruditzen zaigu eredu kapitalista eta heteropatriarkalari hezkuntzaren bitartez aurre egiten lagundu dezaketen "haria" –proposamen eta itun moduan– irudikatzea eta ehuntzea. Haria askotarikoak izaten dira, kolore askotakoak, lodiak batzuk eta finak besteak, laburrak eta luzeak, baina denak dira beharrezkoak ehuntzearen artean. Hala ere, oso kontuz jardun behar dugu, prozesuan sor litezkeen korapiloek ez dezaten alternatiba askatzaileak garatzeko borondatea geldiarazi.

Lau monografikorekin ekingo diogu bildumari; formatu elebiduna –euskaraz eta gaztelaniaz– edukiko dute, eta 2014an Gasteizen izandako Garapenerako Hezkuntzaren IV. Kongresuaren ildoetako buruzko eztabaidari emango diote jarraipena: 1. Subjektu politikoaren eraikuntza; 2. Eraldaketarako Komunikazioa; 3. Botere harremanak; eta 4. Hezkuntza–prozesuen azterketa. Ale guztiak egongo dira eskura Hegoaren webgunean: <[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)>.

Hainbat ataletan antolatuko da, eta irakurketa-espazio ugari izango ditu: hezkuntza emantzipatzailearen jardunari buruzko funtsezko osagaietan sakontzeko artikulu sakona (*sakonean/en profundidad*); aldaketarekin lan konprometitua egiten dutelako nabarmentzen diren pertsona pentsatzaileei eta aktibistei egindako elkarrizketa (*solasean/en diálogo*); utopiak eta sistemaren alternatibekin saioak egiten dituzten talde sozialak (*ekin lanari/hay alternativas*); kontzientzia kritikoa sortzeko baliabide eta tresna eraldatzaileen hautaketa (*begirada konprometituak/miradas comprometidas*); eta, azkenik, iradokizun inkorformista bat –testu edo irudi formatuan–, borroka iraultzaileak ilustratzeko (*matxino arteanen/ rebeldía*). Oihal zati ugari ehundu dute, hortaz, *Haria*k.

Itxaropena dugu argitalpen hau interesgarria izango dela GKEE-etako pertsonentzat eta taldeentzat, gizarte mugimenduentzat, hezkuntzaren eta lankidetzaren alorreko erakundeentzat, komunikabideentzat, iparraldekoentzat, hegoaldekoentzat... baina baita munduko hainbat komunitate eta talderen bazterketaren kontrako jarrera duten hainbat diziplina eta eremutako pertsonentzat ere.

Aurkezpen honi amaiera emateko, eskerrak eman nahi dizkiegu, bihotzez, ale honetan lagundu duten pertsona guztiei. Izan ere, horien ahalegina eta prestasuna ezinbestekoa izan da orrialde hauek argitara ateratzeko. Horiez gainera, Unai Villena, Mónica Vega, Joseba Sainz de Murieta, Isa Vázquez eta Marie Tourelanek lan honekin izan duten jarrera eta konpromisoa aitortu behar dugu, beraien hizkuntz trebetasunekin eta sorkuntza-lan artistikoekin lagundu digutelako. Gure esker ona guztiei.

Izan dezazuela irakurketa atsegina!!!

# Etorkizunak ahalduntzea, eraldaketarako subjektuak hezten

Mendebaldean nagusi den historiak Frantziako Iraultza jarri zuen modernitate kapitalistaren aldaketarako eredu gisa. Gaur egun ikuspegi zabalagoa –dekoloniala, nekazaritza-alorrekoa eta feminista– izan behar dugula pentsatzen dugun arren, iraultza eredu interesgarria da. 1789an, Frantziako Iraultza abiarazi zen urtean, Gizakiaren eta Herritarren Eskubideen Adierazpenaren egileetako bat izan zen Emmanuel-Joseph Sieyès elizgizon, politikari, teorialari konstituzionalak *Zer da hirugarren estatua?* opuskulua argitaratu zuen; hiru galdera soil hauetan oinarritzen da: "1. Zer da hirugarren estatua? DENA. 2. Zer izan da, orain arte, ordena politikan? DEUS ERE EZ. 3. Zer eskatzen du? ZERBAIT IZATEA".

"Hirugarren estatu" gisa baieztatutako subjektu politikoaren definizio labur, simple eta biribila da, eta, horretarako, honakoa zehazten du: a) subjektu politikoa zein izango zen edo zein izan beharko zuen, b) pertsona hori zergatik dagoen eraldatzera derrigortuta, eta c) zerk mugiarazten duen, zer lortu nahi duen eta zein den eraldaketarako bere programa. Une hartatik bi mende igaro dira, hain zuzen ere, sortu berria zen gutxiengoan kapitalismoa merkataritza-arlotik industria-arlorra eraldatzen ari zela, antolamendu ekonomiko, sozial, kultural eta politikoa aldatzeko lehian; gaur egun, XXI. mendearen hasieran gaude, kapitalismoa globala eta neoliberalala den garaian, eta berriro egiten ditugu oinarritzko galdera horiek: zein, zergatik eta zertarako.

Bi mende hauetan, adierazpen ugari ikusi ditugu (nazioa, proletariotza, kolonizatutako herriak, jatorrizko herriak, nekazarien mugimenduak, emakumeak...), eta, pertsona ardatz izanik, eraldatzea erdietsi nahi duten gizarte eta politika mugimenduak sortu ziren eta sortzen dira ikuspuntu horietatik abiatuta. Horiek horrela, nazionalismoak, sozialismoak eta komunismoak, antiinperialismoak, indigenen mugimenduak, feminismoak eta abar ikusteko aukera izan dugu. Horietan guztietan, borrokek, erresistentziek, formatu antolatzaileek, praktikek, eztabaidek, kritikek eta bestelakoek eraldatzeko eta eraldatu ahal izateko boterea, estrategiak eta aliantzak eraiki izan dituzte. Mendebaleko modernitatearen historia, neurri handi batean, eraikuntza eta artikulazio hegemonikoaren aldeko borroka edota pertsonen erakustaldiarekiko erresistentzia izan da.

Nahiko berria da subjektu eraldatzailea mugatzea, egiturazko ikuspuntu analitikutik –hala nola, egiturazko kontraesanek ekarritako eginkizun objektiboa eraiki nahi izatea– subjektibotasun/identitate propioan ardaztutako ikuspuntuetaraino –bakarka eta taldeka egindakoak–, definizio "soziologiko" eta objektibistak zeharkatzen dituen borondate transformatzaile gisa; hau da, esparru ekonomiko eta soziologikotik esparru politiko eta kulturalagora igarotzea, egituraren alorretik agenziaren alorrera, beharrian historikotik ekintza zabaltzeko kontzientzia eta borondatera.

Haserretuen agerpena eta premiazkotasuna kontuan hartuta, hau da, bat egiteko mugimenduak, mugimenduen mugimenduak, "Basta ya" eta "Reiniciemos el Sistema" bektoreak, bizkortu egin da feminismoak aurretik izandako eztabaida.

Aldizkariaren helburua horixe da, eta, batez ere, ale honetan, gai honen inguruko gogoeta kritikoa eskaintzen da: subjektu iraultzaile edota eraldatzaile hori nola osatzen den subjektu gisa, eta zerk eta zertarako mugiarazten duen. Gainera, ez dugu jarrera akademiko edota formalistatik egiten. Hezkuntza emantzipatzailetik egiten dugu, eskubideak, gizarte eraldaketa, utopia eta subjektu plural, zeharkakoa eta eraldatzailea sortzeko eta ahalduntzeko konpromisoa barne hartzen duena, aldaketarako ekarpen gisa. Kapitalismo neoliberalaren ereduarentzat Deus ere ez den eta Dena eskatzen duen pertsona horri oraina eta etorkizuna itzultzeko konpromiso etiko, politiko eta metodologikoa hartzen duen hezkuntza da, nahiz eta subjektu hori izan aberastasun zibilizatzailea, hots, Dena eraikitzen duena.



Irudia: © Eva Flórez.

*Lucas Platero Méndez, Amaia del Río Martínez eta Gema Celorio Díaz<sup>1</sup>*

## Hezkuntza emantzipatzailea: zer berri?

### Sarrera. "Solosalদি" formatuari dagokionez

Ikaskuntza eta jakintzaren eraikuntza solosalদি multzo batean gertatzen dira beti, elkarrizketa gisa, nahiz eta zenbaitetan iruditu aditu bakar baten *argialdiaren* emaitza direla. Gure heziketa oroitzean, akaso, irakasle batek arbel aurretik *egia* azaleratzeko botatzen zuen bakarrizketa andana luzea etorriko zaigu gogora. Egoera horietan, ikasle ginela, aukera gutxi genuen zintzoki eta kritikoki eztabaidatzeko zer ikasten genuen, nola ikasten genuen eta ikasketa horrek pertsonalki zer ekartzen zigun. Arian-arian, gizarte demokratikoagoak eraikitzen joan gara; hezkuntzaren alorrean zabaltzen ari da pedagogia kritikoen eragina,

eta, zenbaitetan, aginte-irizpideak ordezkatu ditu. Hain zuzen ere, testuinguru aldakor horretan hartzen du funtsezko garrantzia elkarrizketak (Flecha, Gómez eta Puigvert, 2001:148. or.).

Hemen aurkezten dizuegun elkarrizketa honetan, berdintasunezko solosalদি bat sortu nahi dugu,  *nolabaiteko* adimen edo kapital kulturalaz hornitua, eta abiaburuan gure irakasle-esperientziak eta eraldaketa sozialarekin dugun konpromisoa izango dituen. Ildo horretan, onartzen dugu gizartean sortutako ezagutza baten emaitza besterik ez dela hemen ikasketa dialogiko gisa adierazitako guztia, eta ez, nahitaez, banakako esperientzia baten ondorioa (Vygotky, 1932; 1934). Halaber, badakigu pertsonok, agentzia dugun subjektu gisa, erabakiak hartzen ditugula harremanak ezartzeko moduari buruz, baita gehien kaltetzen eta desahalduntzen duten inguruneetan ere.

<sup>1</sup> Lucas Platero Méndez, soziologian doktorea, psikologoa eta aktibista. Amaia del Río Martínez eta Gema Celorio Díaz, Hegoako hezkuntza-taldea.

Sei eskuzko idazketa-*esperimentu* honen bidez, zalan-tzan jartzen dugu erosoena eta nagusia dirudien formatua; hau da, aditu batek edo, kasurik onenean, talde batek sinatutako artikulua formatua. Halaber, elkarrizketaren bidez dokumentuaren subjektua/egilea eraldatzen da, eta irekia, malgua eta dinamikoa bihurtzen da, beste pertsonen hausnarketei dagokienez. Hitzak dioen moduan, elkar hizketa bat dago. Dokumentu bat idaztean sentitzen den bakardadearen aldean, "solasaldia" integratzaileagoa da, eta agerian geratzen da amaitu gabea dela, martxan dauden prozesuekin gertatzen den moduan. Saiakera moduko artikuluek komunikazio falta eragin dezakete; solasaldia, aldiz, komunikazioa da, trukea, harremana. Ildo horretan, elkarreraginez eratzen den ezagutza sortu nahi dugu, partekatzearen fruitu dena, beste ezagutzagune posible baterantz iragateko ekimenean parte hartzen dugun bitartean. Hain zuzen ere, hezkuntza emantzipatzailearen eta subjektu politikoaren auziari heltzen diogula, ezin genion proposamen horri ihes egin, eta hainbestetan pedagogia kritiko eta feministatzat adierazi dugun hori praktikara eramateko aukera galdu. Hortaz, erronkari eutsi genion.

Jarraian, hainbat atzera-aurre aurkituko dituzu, galdera, erantzun eta hausnarketa itxuran; irakurketa errazteko idatzi eta berridatzi ditugu, eta prozesu ireki gisa proposatzen ditugu, horietan parte hartzeko gonbitarekin batera.

## Solasaldia

**Lucas Platero.** Aldizkari hau –eta bereziki, zenbaki hau– pertsona talde oso zehatz baten proposamen konprometitu gisa sortu zen. Kultura feminista kritikoan errotua, hezkuntza emantzipatzailearen barruan sartzen da. Halako izenburu *sexy*arekin, uste dut definizio bat behar dugula, nondik abiatzen zareten jakiteko. Zer da zuentzat hezkuntza emantzipatzailea? Jarri al dezakezue adibide bat?

**Amaia del Río eta Gema Celorio.** Hezkuntza emantzipatzailea hainbat alor eta subjektuen ikuspuntutik (pedagogia kritikoaren tradizioetik eta herri-hezkuntzak ikuspegi horri emandako garrantzitik) eraikitzen hasitako proposamen erradikala da, baina gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa bihurtu da, jabetu baikara garapen eredu kapitalista eta heteropatriarkala ez dela iraunkorra, krisian sartu dela, eta, beraz, premiazkoa dela kapitalaren logiken ordez bizitzaren iraunkortasuna lehenesten duten proposamenetara jotzea.

Testuinguru horretan, ezinbestekotzat dugu kultura-aldaketa sortzeko gai den hezkuntza, mundua ulertzeko modua goitik behera aldatuko duena –begirada kritikoak sartuz– eta nagusi den globalizazioari aurre egiteko ordeko hautabideak aurkezteko ahalmena izango duena. Beraz, hezkuntza emantzipatzailea aldaketa sozialarekin konprometitu dago, eta emantzipatzailea da kontzientziario prozesuak bultzatu nahi dituelako, zertarako eta subjektuek beren bizitzetako zapalkuntzak identifikatzeko eta erresistentziako eta sorkuntzako ekintzak martxan jartzeko, epe luzerako prozesu batean. Herri-hezkuntzaren pedagogiak bere gain hartzen duen iraultza kultural horrek hainbat oinarri ditu: kapitalismoa eta patriarkatua desnaturalizatzea; gure imaginario kolektiboa deskolonizatzea, eredu eurozentrismoa eta androzentrikoetatik askatu, eta ezagutzeko eta izateko beste modu batzuetarako bidea irekitze aldera; feminismoa(k) proiektu politiko gisa txertatzea, eta justizia sozialarekin, aintzatespenarekin, solidaritatearekin, iraunkortasunarekin eta ekitatearekin konpromisoa hartzea.

Adibidez, hezkuntza emantzipatzaileari lotutako jardunbideen eredu izan daitezke elikadura-buru-jabetzako ekimen jakin batzuk; zehazki, erabateko aldaketa sustatzen dutenak eta nabarmenki garrantzitsu bihurtzen dituzten ezaugarriak dituztenak. Lehenik eta behin, elikadura-burujabetza auzi kritiko bat da, eta zenbait hautabide proposatzen ditu nekazaritzaren industrian –multinazional handien menpekoo– oinarritutako garapen ereduaren ordez; izan ere, eredu horrek negozioa egiteko baliatzen du elikadura-eskubidea, eta bai pertsonen bai planetaren osasuna jartzen du arriskuan. Bigarrenik, garrantzia ematen die gure ingurunean gizartea eraldatzeko egin behar diren aldaketei. Hau da, barne hartzen ditu pertsonak beren harreman, ekintza, produkzio eta kontsumo eredu aldaketaren parte gisa harditzaketen proposamenak. Hirugarrenik, aliantzak bultzatzen ditu baserriarren mugimenduaren eta erresistentzia eta eraldaketarako ekintzak gauzatzen dituzten bestelako eragileen artean (adibidez, mugimendu feminista). Laugarrenik, ekintza emantzipatzaile guztietan ezinbestekoa den ikuspegi lokal-globala aurreikusten du; izan ere, aintzat hartzen du aurrean dugun krisi sistemikoaren errealitate globala, eta tokiko ekintza-estrategia batekin lotzen du. Bosgarrenik, ikuspegi holistiko eta multidimentsional batetik jorratua izateko aukera iradokitzen du, analisiaren, eztabaidaren eta proposamenaren aberasgarri; horri dagokionez, elikaduraren subiranotasuna lurraldean sustraituta dago, baserriarren aintzatespena da, ekonomia iraunkorra da, ekintza ekologista eta



Irudia: © Joseba Sainz de Murieta.

feminista da, herri-jakintzak berreskuratzea da, elikadura osasungarrirako eskubidea da, enpresa transnazionalen aurkako borroka da, herrien eskubidea da, herri-boterea.

Lucas. Asko dira hezkuntzari buruzko aldizkari akademikoak eta dibulgaziokoak, baita mugimendu feministakoak ere; alabaina, gogoz sartu zarete proiektu honetan. Zuen ustez, zer ekartzen duzue zuek, dagoenaren aldean desberdina dena? Norengana heldu nahi duzue aldizkari honekin eta lehen zenbaki honekin?

Amaia eta Gema. Beste abentura bat hasteko gogoak eta lotsagabekeria apur batek bultzatzen gaituzte horretara. Feminista gisa, ausardiak erakartzen gaitu; izan ere, ausardia, hein handi batean, askatasuna da. Hegoaren hezkuntza-taldeak jarri du abian ekimen hau, eta bertan jaso ditu *bizitzeko moduko bizitzak izateko* mundu bat eraikitzeke ideien inguruan lan egin duten –eta jarraitzen duten– horien guztien nahiak eta ilusioak. Batez ere, Hegoak antolatutako IV. Biltzarrean<sup>2</sup> garatutako proposamenak jasotzen ditugu; bertan, inoiz baino agerikoagoa izan zen merkatuan eta kapitalean oinarritutako garapen eredu suntsitzeko eta gizarte-aldaketarako ekintza ahaldugarriak sortzeko premia. Beraz, esan dezakegu –zentzu zabalean– interes kolektibo bat

dela, eta prozesuak protagonisten ahotsen bidez hedatzeko apustuan geratzen dela agerian. *Hariak* horretarako aitzakia da.

*Hariak. Recreando la educación emancipadora* aldizkariaren helburua da hezkuntza emantzipatzaileko teoria eta praktikarako esparruak pentsatzeko eta sortzeko hedapen-gunea izatea. Deskribatu dugun testuinguruan, uste dugu beharrezkoa dela hainbat proposamen eta aliantza imajinatzea eta ehuntzea (hortik datorkio izena, *Hariak*), hezkuntzaren jardunetik eredu kapitalista eta heteropatriarkalari aurre egiten laguntzeko. Argitalpen honek GGKE-etako, gizarte-mugimenduetako, hezkuntza- eta lankidetzaren erakundeetako, komunikabideetako eta iparraldeko eta hegoaldeko pertsona eta taldeetara hurbildu nahi du; horiez gain, baita askotariko diziplina eta guneetatik munduko hainbeste komunitate eta talderen bazterketaren aurka agertzen diren pertsonetara ere.

Amaia eta Gema. Hezkuntza emantzipatzailearen ikuspegitik ezagutza kritikoa sortu nahi dugu, eta ohartu gara pentsaera dibergenterako gune bat eraikitzea proposatzen duzula zure idazlanetan. Zer elementu berri darabilzkizu buruan? Begirada aldaketa bat al da?

Lucas. Uste dut ikuspegi oso pluraletatik –besteak beste, feminismitik, herri-hezkuntzatik, hezkuntza berezitik, arte-hezkuntzatik...– eraikitako pedagogia kritikoen ekarpenen oinordeko naizela, eta ekarpen horiek aukera ematen digutela irakaskuntza-ikas-kuntza motako harremanetako boterea zalantzan jartzeko. Horrek esan nahi du berriz pentsatu behar dela zer-nolako harremana ezarri nahi dugun, eta zein baldintza materialetatik, eta hausnartu behar dugula zer ikasten dugun, eta zertarako. Foucaultek (1976) zioen moduan, eskola –espetxea eta eroetxea bezalaxe–, gune totalitario ez ezik, distopien sorburu ere izan daiteke, eta nik iturri horietatik edan besterik ez dut egiten. Ildo horretan, asko interesatzen zaizkit *queer* pedagogiak (Britzman, 1995) eta transpedagogiak (Galarte, 2014), mahai gainera ekartzen baitute zer zeregin duten gorputzak eta sexualitateak eskolan eta nola transmititzen ditugun gorputzari eta gaitasunei buruzko ideia normatiboak; gainera, aukera ematen digute eskolatik garaia baino lehen kanporatutako subjektuei dei egiteko. Hau da, ez naiz ari zenbait gutxiengo barne hartzeaz soilik, direla horiek neskak, sexualitate ez normatiboko gazteak edo dibertsoak gorputz motari edo etniari dagokienez. Aitzitik, geure burua geure premia anitz eta interseksionaletatik birpentsatzeak dakarren

2 *Garapenerako Hezkuntzaren IV. Biltzarra. Hezkuntza aldatzen, mundua aldatzeko... Hezkuntzako ekintza emantzipatzaile baten alde!* Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 9tik 11ra.



erronka onartzeaz ari naiz. Sarritan, inklusioaren ikuspegian, ontzat ematen dugu normaltasun hegemoniko bat dagoela eta onartu beharreko beste pertsona desberdin batzuk daudela. Nire ustez, hori ez da nahikoa. Eskola eguneroko jardunetik eraldatzen saiatzearen alde egiten dut.

Asko kezkatzen naute erakunde horretan gertatu ohi diren indarkeriak eta abusuak. Zenbaitetan hedabideen bitartez ezagutzen dugun indarkeria da, esaterako, 2016ko urrian Palma Mallorcako San Roca ikastetxean gertatutakoa, non

nerabe talde batek bortizki jipoitu baitzuen 8 urteko haur bat. Kasu horri ikusgarritasun handia eman zitzaion hedabideetan, erdibiderik gabe, onei eta txarrei buruzko kontakizun baten moduan. Hortaz harago, are deigarriagoa iruditzen zait zer-nolako interes falta dagoen eskolako indarkeria sistemikoa dela onartzeko, eskolan berezkoa. Kezkatu egiten nau, halaber, ager daitezkeen eta indarkeria horren iturburuan dauden ñabardurak ez ikusteak: adibidez, haur hori testuinguru jakin batean kolpatu zuten, eta haren ahizpak honako hau azaldu zuen: "mutil sentitzen da, eta, adibidez, futboleko jolastu nahi du", *Última Hora*<sup>3</sup> egunkariko J. Jiménez-en arabera. Esango nuke jazarpen kasu gehienetan agertzen dela genero-arauen haustura (eta horiek betetzeko mandatua), era batean edo bestean; izan ere, rol eta itxaropen estereotipatuenean mende jartzen dituzte pertsonak, bujarra, puta, marikoi, trabelo eta abarren gisako hitzak erabiliz. Halako gaitzizenak erabiltzean ez da beti horien esanahi zehatza baliatu nahi; aitzitik, gogorarazi nahi da (bai pertsonari, bai ingurukoei, bestearen bitartez ere ikasiko baitute) taldeotako buruzagiek inposatutako jokabide-arauak jarraitu behar dituztela, edo, bestela, "generoko" iraina jasango dutela; hau da, generoaren gaineko indarkeria bat.

«Asko interesatzen zaizkit *queer* pedagogiak eta transpedagogiak, mahai gainera ekartzen baitute zer zeregin duten gorputzak eta sexualitateak eskolan eta nola transmititzen ditugun gorputzari eta gaitasunei buruzko ideia normatiboak; gainera, aukera ematen digute eskolatik garaia baino lehen kanporatutako subjektuei dei egiteko»

Lucas. Pedagogia emantzipatzaileak nola antolatu ditzakegun hausnartzeko galdera bat egin nahi nizuen: zein neurritan balio digu subjektu politikoaren ideiak hezkuntzaren testuinguruan?

Amaia eta Gema. Baldin eta aldaketarako eta eraldaketarako prozesu gisa ulertzen badugu hezkuntza –hau da, herritar kritikoak eta ahaldunduak prestatzeko gaikuntza-estrategia integral gisa–, emantzipazio-ekintzarantz orientatzearekin lotzen badugu haren alderdi politikoak, komunitateak birsortutako elementu bizitzat

hartzen badugu jakintza, eta kultura hartzen badugu gizarte bidezkoagoak, demokratikoagoak, inklusiboagoak eta solidarioagoak garatzeko esparrutzat, orduan, subjektu politikoaren ideia funtsezko bihurtzen da ikuspegi honetarako. Hezkuntza proposamen politiko bat da; haren bidez, beren errealitateari buruz kontzientzia hartzeko prozesuak gara ditzakete banakoek, borroka eta eraldaketa-prozesuetan parte hartuz. Bide hori jarraituz bihurtzen da banakoa subjektu politiko; bere bizi-baldintzen inguruan kritikoki hausnartuz eta, aldi berean, beste subjektuekin batera, horiek eraldatzeko hautabideak sortuz.

Hezkuntza emantzipatzailearen bidez, gizarte-eraldaketako prozesu errealak bultzatzeko gai den subjektu politikoak sortu nahi da, eta, horretarako, ezinbestekoa da askotariko ikuspegiak eta subjektuak lotzea. Aliantzak oinarrizko estrategia bihurtzen dira gauzen egoera gainditzeko proposamenak lantzeko eta garatzeko (Isabel Rauberren terminologiari jarraiki). Egile horren aburuz, ezinbestekoa da deskolonizatorako heztea, eta hezkuntza deskolonizatzea: "Kulturartekotasuna eta deskolonizazioa ez dira kontzeptu-definizio abstraktuetatik sortzen, ez datoz herri-aktore/-subjektuek errealitatea sortzeko-eratzeko gauzatzen dituzten jardunbideetatik bereizitako definizioetatik. Talde-jardunbide komunitarioak dira, eta autoerakuntzako prozesu batzuk taxutzen dituzte, zatikatutako aktore-subjektu horiek subjektu politiko batean hezurramitutako subjektu kolektibo eta plural bihurtzen dituztenak" (2014:49).

Egileak iradokitzen duenez, ahalegina egin behar da "pentsamendu emantzipatzaile berriak" sortzeko,

3 J. Jiménez (2016). "La familia de la niña ya denunció acoso tres días antes de la paliza en el colegio". *Última hora*, 2016/10/09. Hemen eskuratu daiteke: <<http://ultimahora.es/sucesos/ultimas/2016/10/09/224556/familia-nina-denuncio-acoso-tres-dias-antes-paliza-colegio.html>> (azken aldiz bisitatua: 2016ko urriaren 13an).

herri-subjektuen errealitateetatik eta borroka esperientzietatik abiatuta. Horrez gainera, haiekin batera jardutea proposatzen du, guztiak baitira aldaketaren subjektu.

**Amaia eta Gema.** Zer eskain diezaioke interseksionalitateak hezkuntza kritikoa zeharkatzen duen jarrera politiko horri? Hezkuntza emantzipatzailearen ikuspegitik, interseksionalitatearen proposamenak erakartzen gaitu, errealitatea konplexuago bihurtzen eta subjektu hegemonikoa zalantzan jartzen baitu, baina fida al gaitzake tresna batez, jada ez baditu aipatzen emakumeak, beltzak, errefuxiatuak edo transexualitatea, adibidez?

**Lucas.** Intersexualitatearen inguruko teorien oinarrian, hainbat ikerketak eta gizarte-mugimenduk ekarritako jakintza dago; besteak beste, arrazismoaren aurkakoez, deskolonialez, dibertsitate funtzionalari buruzkoek, feminismoek eta sexualitateari buruzko ikuspegi nagusiarekiko kritikoa diren ikerketek. Ongi begiratzeko gonbita luzatzen digute: erreparatzea zer errealitate eta premia ez diren zaintzen tesuinguru jakin batean, zein subjektu hartzen den arrunt eta unibertsaltzat, eta zer hartzen dugun normaltasuntzat irakaskuntza-ikaskuntza harreman batean gaudenean (eskola-errendimenduari, itxurari, jarrerari eta abarri dagokienez). Hau da, botereari eta pribilegio eta gizarte-bazterkeriako harremanei buruzko teoria bat da, eta argi eta garbi egiten dio aurka gure erosotasunari; zehazki, itxuraz talde homogeen eta egonkorak –emakumeak, haurrak, ijitoak edo gaitasun handikoak– aipatzen dituzten identitate-kategoriak erabiltzeko dugun joerari. Giza talde horietako bakoitzaren ezaugarri nagusia heterogeneotasuna da; hala ere, halako taldeez kanpo, pentsatu ohi da taldekideek ezaugarri berdin asko dituztela, ez badira guztiak. Irudikapen horrek ikusezin bihurtzen ditu batzuen eta besteen arteko desberdintasunak –baina horrek ez du esan nahi kategoriak ezin direnik gizarte-aldaketak sustatzeko erabili–, eta erronka nabarmenak jartzen ditu mahai gainean (Platero, 2012).

Teoria interseksionalek diskriminazio bikoitzaren edo hirukoitzaren ideietatik harago joatera bultzatzen

“Teoria interseksionalek diskriminazio bikoitzaren edo hirukoitzaren ideietatik harago joatera bultzatzen gaituzte”

gaituzte (halakoak egoerak deskribatzera eta pertsona kalteberenen zerrendak sortzera mugatzen dira); horretarako, ahaleginak egin behar dira argitzeko zer-nolako harremanak dauden gizarte-klasearen eta migrazio-prozesuen artean edo gorputz-dibertsitatearen eta genero-identitatearen artean, adibide zehatzak ematearren. Esperientzia zehatz horietatik sortzen diren indar-erronkez ari naiz, eta jende geldiezin eta jakin-minduna behar da, eskaintzen dizkiguten aukera pedagogikoak argitu ahal izateko.

**Amaia eta Gema.** Hezkuntza emantzipatzaileak ekintza eraldatzaileko diskurtso eta teoria kritikoa proposatzen du beti. Nola laguntzen du interseksionalitateak mobilizatzen eta ezarritako ordena irauliko duten esperientzia alternatiboak sortzen? Sakonago azalduko duzu, mesedez?

**Lucas.** Agian, adibide batekin errazago ulertuko da. Dibertsitate funtzionaleko ikasleei buruz pentsatzen dugunean, beharbada bururatuko zaigu arkitektura-oztopoek galarazten dietela zentro baterako sarrera, eta ez diegu hainbeste erreparatzen parte-hartzea eragozten dieten gizarte- edo jarrera-oztopoei. Bestalde, ikasle transexualei buruz pentsatzen badugu (zenbaitetan, dibertsitate funtzionala ere izan dezakete), oztopo berberak erraztuko dute horien diskriminazioa: direla arkitekturakoak (komunetan eta beste espazio batzuetan neska-mutilak banandu, eta zenbait ematen zaien tokian lekuz kanpo daudela sentiarazten dietenak) nola jarrerei eta gizaritari lotutakoak. Beraz, bai ikasle batzuentzat bai besteentzat, ona izan daiteke eskola-guneak berritzea, irisgarritasuna handitzeko; gainera, hezkuntza-komunitate osorako aukera berriak sor ditzake horrek, esanahiari buruz hausnartzen badugu eta tartean dauden subjektu guztien ahotsak jasotzen baditugu.

Berrikuntza horren laguntzaz, agerira ekar daitezke ontzat ematen ditugun oinarriko zenbait arau: adibidez, komunaren gisako guneetako logika bitarra –txiza zutik edo eserita egitea, etxean nahiz eskolan, komunak mutilentzat edo neskentzat izatea...–, Amelia Barquínek azaltzen duen moduan (2015). Egile horrek Gasteizko eskola bateko zaharberritze-esperientziari buruz hitz egiten digu; izan ere, orduko hartan ikasleek parte hartu zuten, kontuan hartuz zer premia adierazi zituzten dibertsitate funtzionala zutenek eta transexualak zirenek. Prozesu horrek erakutsi zuenez, irakaskuntzan jarduten dugunean, beren buruak sailkatzen irakasten diegu ikasleei (neska

naiz, mutila naiz, zutik egiten dut txiza, eserita egiten dut, komun horretan sar naiteke edo ez...), modu gutxi gorabehera esplizituan, eta, hezitzaile gisa, "gauzak ondo egiteari" buruzko araua ere ematen diegu nolabait. Horrek sistematik kanpo uzten ditu arauak bete nahi ez edo ezin dituztenak –dela jaiotzan esleitutako sexuaren mandatu soziala betetzea, dela txiza "ondo" egiteko aukera ematen duen gorpuzkera izatea, etab.–. Egoera horrek, azken batean, okerreko lekuan daudela sentiarazten die. Beraz, eskola zaharberitzeko beharrak abagune bat zabaltzen du guneak ikasleen premien arabera birpentsatzeko, ez hainbeste salbuespenak egiteko (zu joan zaitezke komunera, bidezko arrazoi bat duzulako, eta salbuespen bat merezi duzu), arau orokor inklusibo bat sortzeko baizik. Hori da interseksionalitatearen eraldaketa-ahalmena.

**Amaia eta Gema.** Hezkuntza emantzipatzailearen gakoetako bat prozesu horretako parte-hartzaileen ahalduntzea da. Horrek esan nahi du egiturak aldatu behar direla, egungo garapen-ereduak eragindako desberdinkeria-egoerak gainditzeko. Zertan desberdintzen dira, batetik, ideia hori eta, bestetik, ikuspegi interseksionalari egozten zaion agentziazio-gaitasuna? Sakondu dezakezu agentziazioaren inguruan?

**Lucas.** Uste dut nor zaren ezagutzeak –zentzu politikoa izan dezakeen identitate batean– ematen dizula agentzia. Ulertzen laguntzen dizu gertatzen diren gauzak, batzuetan, egiturazkoak direla. Halakoxea da, adibidez, sexismoak, homofobiak edo klasismoak eragindako kaltea. Diskriminatzeke modu horiek bizitzari buruz dugun ikuspegiaren parte dira, eta, hortaz, aldatu egin daitezke. Agentziak, hain zuzen, iragateko aukera ematen digu: gure patua aldatzeko ezer egin ezin duen biktima sentitzetik, kontzientzia kolektiboan eraikitzen den aldaketa-subjektu aktibo gisa ikustera geure burua.

Uste dut agentziak zera esan nahi duela: interseksionala den eta halakotzat hartzen den toki batean egoitea, edo, nahi baduzue, elkarri lotutako ezaugarriak dituen toki batean (Lugones, 2008:80). Horri esker, tresna eta aliatu gehiago dituzu zure borrokarako, eta kontzeptu esparru bat duzu, non gizarte-mugimendu bateko kide baitzara, eta ez gauzak gertatzen zaizkion pertsona bat. Aldaketa hori funtsezkoa da gure gizarte parte-hartze sozialeko tresnak erabiliz eraldatzeko; bestela, norberak itxuraz merezi duen patu saihestezina besterik ez lirarteke izango.



Ilustrazioa: © Isa Vázquez.

**Lucas.** Labor esanda, kontzientzia hartzeko prozesu bat eta zeure bizitza gobernatzeko gaitasuna besterik ez da agentzia. Bizitzeko moduko bizitzak izateko oinarrizko tresna dela uste dut. Bestalde, galdera bat egin nahi nizuen. Normalean, eztabaida guztietan agertzen da norbait, esanez gizarteke egitura-arazoak (genero-indarkeria, arrazismoa, klasismoa, etab.) prebenitzeko edo erazteko zeregina dela hezkuntzan funtsezkoa, eta ziurtzat joz gure gizarte eraldatzeko gauza den belaunaldi berri bat behar dela. Zuen ustez, zenbateraino da arazotsua aldaketaren begirada ekologiko hori eta zenbateraino lotzen da pedagogia eraldatzaileekin?

**Amaia eta Gema.** Egia da esaten duzuna. Horrelako kontuak daudenean, beti eskolara jotzen da, bera izan dadin horien arduradun. Izan ere, irakasleek askotan agertzen dute nekea, gizarte-arazo guztiak eskolan eta, gainera, zeharka jorratu behar diren usteari dagokionez. Gure ikuspegitik, kontua ez da arazo horiei eskolan heldu behar zaien ala ez, oinarri hori ezinbestekoa baita guretzat; aitzitik, horiek jorratzeko modua da garrantzitsua. Hezkuntzak alderdi politikoa izan behar duela defendatzen dugu; izan ere, ulertzen dugu irakaskuntza-ikaskuntza prozesuek kontzientzia kritikoa sortu behar dutela, eta errealitatearen aurrean jarrera jakin bat hartzera eraman, injustizia sortzen, desberdinkeriak sakontzen, eskubideak urratzen, pertsonak baztertzen, aniztasuna desagerrarazten, planeta esplotatzen eta bizitzaren iraunkortasuna arriskuan jartzen duen sistemarekiko haserretik. Guk defendatzen dugun hezkuntzak

herritar mobilizatuak eta aktiboak sortu behar ditu: beste mundu bat –pertsonek eta planeta zainduko dituen mundu askeagoa– eraikitzeko konpromisoa duten herritarrak.

Alabaina, eskolaren zeregina nabarmentzeak ez du esan nahi aldaketarako aukerak etorkizun jakin baten esku

zuten direla soilik, beste printzipio batzuen arabera hezitako haur eta gazteak heldu bihurtu eta gero-rako. Orainean jardun behar denez, uste dugu herritar guztietara hedatu behar dela sozializazio kritikoa. Eta, hori lortzeko, hemen azaltzen ari garenaren moduko pedagogia eraldatzaileak erabili behar ditugu ezinbestean. Hori egia bihurtzeko, nahitaezkoa da, oraingo garapen ereduaren (kapitalista, estraktibista, patriarkala) erasoei aurre egiteaz gain, ordezeko hautabideak probatzen hastea, eta beste eredu batzuk jartzea praktikan ekoizpenerako eta kontsumorako, harremanetarako eta komunitatea sortzeko, ahalduzko eta emantzipatzeko. Eta hori, ekintza politikoa ez ezik, ekintza hezigarri eta emantzipatzailea ere bada.

Freirek dionez (1985): "Hezkuntza emantzipatzaileak ez du bere horretan gizarte-aldaketarik sortzen [...], baina hezkuntza emantzipatzaileak gabe ez da izango gizarte-aldaketarik"<sup>4</sup>. Eta beste ideia bat dakargu, hau ere herri-hezitzaile beraren irakaspenetatik ateratakoa, eta "argitaragabe bideragarriaren" kategorian laburtzen da. Esamolde hori erabiltzen duenean, gizarte kontzientziatuak "utopia bideragarriak" amesteko eta irudikatzen duen gaitasunaz ari da Freire; gidatu ere, oximoron iradokitzaile horrek gidatzen du hezkuntza emantzipatzailearen ikuspegia. Pedagogia eraldatzaile bidez, zapaltzen ari zaizkien egiturez kontzientzia hartzen dute pertsonak eta komunitateak. Dena dela, errealitatearen aurrean makurtu beharrean, matxinatzea erabakitzen dute, jakinaren gainean erabaki ere; oztopoen aurrean otzan eta pasibo agertu beharrean, borroka egiten dute, eta justizia soziala eta ekitatea eraikiko dituzten beste baldintza batzuk sortzera konprometitzen dira. Alfonso Torres Carrillok azaltzen duenez (2007:4): "Gizarte-praxi eraldatzaileekin uztartzen badira, hezkuntza-jardunbide kritikoei beraren historia idazteko aukera ematen diote jendeari;

“Subjektu politikoak behar baditugu, mobilizatu nahi duguna agerian jartzeko eta zehazteko izango da, eta ez haien esanahia finkatzeko edo identitate horien fundamentalistak izateko”

hau da, hura baldintzatzen duten kontrako egoera eta faktoreak gainditzeko gai bihurtzen ditu”.

Talde eta mugimendu sozial askoren borroka eta ekintzetarako ekarpen garrantzitsuak dira proposamen hauek. Ekite hori berrirakurtzean, diskurtso kritiko berriak, begirada

berri kritiko eta konplexuagoak sortzen dira, adibidez, mugimendu feministek proposatzen dituztenen modukoak.

**Amaia eta Gema.** Zure ikuspegitik, zer osagai berri ekartzen ditu transfeminismoak emakumeen zapalkuntza azaltzeko, eta zein da haren ekitearen subjektu politikoa? Zure ustez, zer subjektu politiko lagundu eta jarri behar ditu bere ekintza eraldatzailearen erdigunean hezkuntza honek?

**Lucas.** Asko gustatzen zait egin didazuen galdera hori! Proposamen transfeministen ekarpen garrantzitsuenak hauek dira: batetik, eztabaidan subjektu berriak sartzea, esaterako, gizonetara, transexualtara eta, nolabait, subjektu normatibo hegemonikoenetik kanpo geratzen diren guztietara jotzea. Bestetik, identitate-jarrerak horiek beraiek gainditzeko, arreta desberdinkeria horiek sortzen dituzten arauetan jarri, eta, horrela, gure interesgunea hortxe kokatzeko. Lehen esan dudana bezala, garrantzitsuena ez da pertsona eszentriko batzuk edo gutxiengo-egoeran dauden batzuk egotea, baizik eta, beste bazterkeria mota batzuen artean, sexismoa, transfobia, klasismoa eta kapazismoa izango direla aurre egin beharreko oztopo arazoak. Ildo horretan, subjektu politikoak behar baditugu, mobilizatu nahi duguna agerian jartzeko eta zehazteko izango da, eta ez haien esanahia finkatzeko edo identitate horien fundamentalistak izateko. Haur transexualen edo dibertsitate funtzionala duten haurren esperientziak lagungarriak izan daitezke guztiok menderatzen gaituzten arau sozialak ulertzeko; adibidez, gorputzaren "normaltasuna" edo edertasun-kanona. Eta zuek planteatzen duzuen moduan, utopiak funtsezko garrantzia du gure urratsak zer norabidetan egin orientatzeko, gure ametsen antz handiagoa duen gizarte bat lortzeko, ezinezko ziruditen eskubideak lortuz: adibidez, gure iraganean, emakumeek bozkatzeko eskubidea, apartheidaren amaiera, etab.

**Amaia eta Gema.** Zenbaitetan, eremu akademi-koetan, zenbait ideia taxutzen dira sexualitate eta

4 Paulo Freireri egindako elkarrizketa, CEAAL, Buenos Aires, 1985.

identitate edo genero ez-normatiboen "bikaintasunen" inguruan, ohartu gabe horiek ere har ditzaketela botere eta pribilegioko guneak. Nola egon adi arrisku horiei?

Lucas. Nolakoa izan behar den esaten duen arau bat sortzen ari den neurrian, dela genero-identitate edo adierazpen normatiboetarako, dela nagusitasun txikiagoa dutenetarako, zerbait ez doa ondo. Horregatik, kontua ez da zenbait pertsona barne hartzea, beste batzuk pribilegioetatik kanpo jarraitzearen kontura, baizik eta jarraibide dugun araua eta logika auzitan jartzea. Ildo horretan, homonormatibitatearen (Duggan, 2003), homonazionalismoaren (Puar, 2007) eta interseksionalitatearen (Crenshaw, 1989) moduko tresna kontzeptualak lagungarriak izan daitezke, hausnartzeko nola ibili erne zenbait pertsonaren eskubideak beste batzuen aurka ez erabiltzeko eta nola ulertu, ezen, eskubideen bila, emantzipatzen laguntzen ez diguten balio eta indar batzuk indartzera jo dezakegun... Eta nik uste dut eztabaida interesgarria dela, eta beste egun baterako utzi dezakegun elkarrizketa batera eraman gaitzakeela. Gozamina izan da zuekin hitz egitea.

## Bibliografia

- Barquín, Amelia (2015). El váter de la escuela. Una reflexión sobre género, arquitectura y educación. *Athenea Digital*, 15(1) zenb., 303.-315. or.
- Britzman, Deborah P. (1995). Is there a queer pedagogy? Or, stop reading straight, *Educational Theory*, 45. zenb., 151.-165. or.
- Duggan, Lisa (2003). *The twilight of equality? Neoliberalism, cultural politics, and the attack on democracy*. Boston: Bacon Press.
- Crenshaw, Kimberlé (1989). Demarginalizing the Intersection of Race and Sex: A Black Feminist Critique of Antidiscrimination Doctrine. *Feminist Theory and Antiracist Politics*, 140. zenb., 139.-167. or.
- Foucault, Michael (1976). *Vigilar y castigar. Nacimiento de la prisión*. Buenos Aires: Siglo XXI.
- Flecha, Ramón; Gómez, Jesús eta Lidia Puigvert (2001). *Teoría Sociológica Contemporánea*. Barcelona: Paidós Ibérica.
- Galarte, Francisco (2014). Pedagogy. *Transgender Studies Quarterly*, 1(1-2). zenb., 124.-28. or.



Irudia: © Eva Flórez.

- Lugones, María (2008). Colonialidad y género. *Tabula Rasa*, 9. zenb., 73.-101. or.
- Platero, R. Lucas (koor.) (2012). *Intersecciones. Cuerpos y sexualidades en la encrucijada*. Barcelona: Bellaterra.
- Puar, Jasbir (2007). *Terrorist assemblages: Homonationalism in queer times*. Durham: Duke University Press.
- Rauber, Isabel (2014). "Deskolonizazioa, askapena eta hezkuntza zibilizazio-aldaketarako. Gako sozialak, politikoak, ekonomikoak eta kulturalak Latinoamerikatik ltxaropeneko pedagogiak" in *Hezkuntza aldatzea mundua aldatzeko... Hezkuntzako ekin-tza emantzipatzaile baten alde! Garapenerako Hezkuntzako IV. Biltzarreko aktak* Bilbo: Hegoa.
- Torres Carrillo, Alfonso (2007). Paulo Freire y la Educación Popular. *EAD*, 69. zenb. Hemen eskuratu daiteke: <<https://www.dvv-international.de/es/educacion-de-adultos-y-desarrollo/ediciones/ead-692007/el-decimo-aniversario-de-la-muerte-de-paulo-freire/paulo-freire-y-la-educacion-popular>> [Egun honetan kontsultatua: 2016ko irailaren 15a].
- Vygotsky, Lev (1932/1979). *El Desarrollo de los Procesos Psicológicos Superiores*. Mexico: Grijalbo.
- \_\_\_\_\_ (1934/1995). *Pensamiento y Lenguaje*. Barcelona: Paidós.



Peter McLarenek lagatako irudia.



## Pedagogia kritikoak etorkizun emantzipatzaile berrietarako

**Peter McLaren** Estatu Batuetako Chapman Universityko Ikaskuntza Kritikoetako katedraduna da. Era berean, bertako Paulo Freire Proiektu Demokratikoko Etika Global eta Justizia Sozialeko zuzendarikidea eta nazioarteko enbaxadorea ere bada. Horrez gain, Txinako Changchuneko Northeast Normal Universityko katedraduna ere bada. Berrogeita hamar liburu idatzi eta argitaratu ditu, eta bere idazkiak hogeita hamar hizkuntzatara itzuli dituzte. Pedagogia Kritiko eta Herri Hezkuntzako McLaren Institutuko ohorezko zuzendaria eta Changchuneko Northeast Normal Universityko Ikerketa Pedagogiko Kritikoko Zentroko ohorezko zuzendarikidea da. Marxista humanista da, eta klaseak ematen ditu Latinoamerikan, Ipar Amerikan, Asian eta European. Ekintzaile politikoa da, eta sari asko irabazi ditu idazle moduan. Latinoamerikako eta Karibeko Hezitzaileen Elkarteak hezitzaile nabarmen izendatu zuen McLaren doktorea.

**Gure gizartean globalizazio neoliberalaren ondorioek eragin handia dutela kontuan hartuta, zein da hezkuntza kritikoaren zeregina gure pentsamenduan hain sustraituta dauden ikuspegi androzentrista, eurozentriko eta produktibista guztiak desagerrarazten dituen aldaketa kulturala sustatzeko orduan?**

**Peter:** Globalizazio neoliberalaren ondorioz, hezkuntza publikoak mozkin finantzario espekulatiboak eta enpresa-inbertsiorako aukerak bilatzea dauka helburu. Jarduera maltzur hori agerikoa da interes finantzario, militar eta industrialen mesedetan unibertsitateetan egiten den birmoldaketan; behin-behineko edo lanaldi mugatuko irakasleen larregizko erabileran eta esplotazioan; titulazioak ematen dituzten irabazi-asmodun erakundeen hazkuntzan; eta tasa akademikoen igoeran, herritartasun konsumistaren onurarako herritartasun kritikoari egin-

dako erasoei buruz ez hitz egitearren. Eremu hone-tan ari naiz borrokan, baina bizileku dugun kosmosa ulertzen ere ahalegintzen naiz.

William Robertson soziologoaren esanetan, gutxi gorabehera gizakien heren bat ekonomia kapitalistako partaidetza emankorretik kanpo dago. Horrelako biztanle asko eta asko Latinoamerikan bizi dira. Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik, aldaketa ikaragarria egon da Estatu Batuetan, gizarte-ongizatearen inguruko kezka miresgarria albo batera utzita kontrol sozialaren inguruko kezka delako nagusi. Orain, langile haserreak matxinatu eta azkar-azkar bilakatzen ari den "favela-planetaren" aurka protestatuko ote duten beldur da elite zuzendaria.

Robinsonek baieztatu duenez, estatuak kapital-metaketa bidez kohesio sozialaren sorreran zeukan zeregina desagitzen ari da larregizko metaketa

kapitalistaren ondorioz. Hori dela eta, estatua "zilegitasunerako" eginkizuna galtzen ari da, eta, une honetan, bertako, AEBetako hauteskunde-zikloa da horren adierazgarri, gobernu-zikloetatik kanpoko pertsonak –Trump, esaterako– altxatu eta, gorrotoz zein indarkeriaz betetako logikaren bidez, sobera omen dauden biztanleak deabruzteko adorea ematen diotelako jendeari berari.

“Orain, ados gaude hezkuntza bera enpresa-sistemaren atzaparretatik erreskatatzea zeinen garrantzitsua den esatean, nahiz eta oraindik ere hezitzaile marxistok mehatxupeko espeziea garen”

herrialdeko gune tradizionalenetan sustraituta jarraitzen duten arrazakeria, patriarkatu, misoginia eta homofobia errotuak gailentzeko edo saihesteko ahaleginean.

Justizia sozialaren gaia zehaztu behar dugu berriro, kapitalismoaren historiaren argitan. Agerikoa denez, sistema kapitalistak akats larriak ditu, eta ezin dira sistema suntsitu gabe

Kapitalismo neoliberalaren eragin gaiztoaren ondorioz, etsipen larria sortu da herritar politizatuen artean, eta orain ez da lehen bezala babesten kapitalismoak eta demokraziak talde ona osatzen dutenik. Jendea konturatu egin da sortu dugun gizartean demokrazia bera erosi egiten dela, eta honakoak dira erosleak: super PACak (Ekintza Politikorako Lantaldeak), bilioidun maniatikoak edo biak.

Zorionez, neurririk gabeko kapitalismoari antzina emandako babes sendoak eta nagusitasun iparramerikarraren kontzeptuaren inguruko leialtasun irmoak ageri-agerian utzi dute zenbait kate-maila ahul daudela, baina, batez ere, gehienetan gazteek eratutako mugimendu sozialen artean, egoera txarragoan dauden eremuak gero eta ugariagoak direlako. Orain, ados gaude hezkuntza bera enpresa-sistemaren atzaparretatik erreskatatzea zeinen garrantzitsua den esatean, nahiz eta oraindik ere hezitzaile marxistok mehatxupeko espeziea garen.

Ilarak jarraitzailez beteta, 2016rako presidentegaiak aurkeztu zituenean, Alderdi Errepublikanoa zatitu egin zen, eta litekeena da bere urkamena nahi gabe eratu izana. AEBetako hauteskunde-prozesuko gastu mugagabeek axolagabekeria zitalez urratu dute esparru publikoa, hauteskunde-prozesua hautsi egin delako eta, aldi berean, pribatizazioaren logika ere sendotu delako.

Herritartasun kalamasra gaur egungo ikuskizuneko politikaren hipokresiaren ondorioz agortuta dagoela ikusita, ez da harritzekoa hain zaila izatea gobernantza demokratikoaren aldeko adore handia piztea, baina, batez ere, aitortzen dugunean balio demokratikoak (egin gabeko idealen esparrua barne) ez direla elkarren indargarri eta ez dutela txiroen lan-indarraren konturako mozkinak lortu nahi dituztenen leialtasuna irabazterik. Porrot egin dugu

zuzendu. Bestela esanda, akatsak edo abian dagoen krisia berezkoak dira kapitalismoko jardueran, eta ezinbestean garamatzate elikagaien, etxebizitzaren eta osasun-laguntzaren urritasunera. Era berean, langabezia bera ere kronikoa da, eta giza duintasunaren zein buru-estimua inguruko axolagabekeria nazkagarria da benetan, estatuko indarkeria militarizatuaren tratu txarrak jasan dituztenen bizitzetan ikusten den bezala. Kapitalismoaren kasuan, protesta profetikoa azaldu behar dugu. Jendeari bere eredu ekonomiko eta politikoa aukeratzen utzi behar diogu, baina sozialismoaren aldeko aukera ez litzateke lagungarria izango, AEBen interesak elikatuko lituzkeelako nazioartean. Hori dela eta, eredu ez-kapitalistak bete-bete gaitzesten dira behin eta berriro.

Estatu Batuek zapalduetako duintasuna babesteko diseinatutako giza eskubideak sustatzen dituzte. Hala ere, modu selektiboan ezartzen dira. Ahuleziaz defendatzen dira, sarritan nazioarteko arautegia urratzen delako munduko txiroen ongizatearen kaltetan interes estatubatuarrak berreskuratzeko. Pribilegiatu gutxi batzuen jokabidea eta ideala gizaki gehienek jokabidea eta ideala ez badira, argi eta garbi esan behar dugu jokabide eta ideal horiek ez moralak, ankerrak direla.

Mendebaldeko zibilizazioko jarduera ideala ezin da termino materialetan unibertsalizatu, planetan behar beste baliabide material eskuragarri ez dagoelako, herrialde guztiek munduko biztanleen %25 bakarrik dituzten herrialde aberatsek besteko ekoizpena eta kontsumoa lortu ditzaten. Esate baterako, AEBetan, munduko energiaren %20 kontsumitzen da gutxi gorabehera, munduko haragiaren %15 jaten da eta munduko hondakinen %40 sortzen dira, baina biztanleen %5 baino ez dira bertan bizi. Zer esan geure aztarna ekologikoaz? Mundu guztia AEBetan bezala bizi izango balitz, Lurra bezalako lau planeta

beharko genituzke aurrera egiteko. Kontsumoaren inguruan ditugun balioak beste gai bat dira. Pedagogia kritikoak gai horiek jorratu behar ditu.

**Pedagogia kritiko tradizionalak zer neurritan ari dira erresistentziako talde eta mugimenduetatik sortutako feminismoko, ekologismoko, bizimodu oneko, deskolonizazioko, aniztasun sexualeko eta generoko... proposamenak kontuan hartzen? Pedagogia kritikoak nola gainditzen du bereizgarritasunen errespetuaren eta sistema kapitalistari aurre egiteko moduko programa bateratuaren eraketaren artean dagoen tentsioa?**

**Peter:** Gaur egun, oso garrantzitsuak dira pedagogia dekoloniala, pedagogia feministak eta ikuspegi eko-pedagogikoak. Hala ere, orokortzen direnerako, etxekotuta daude, eta ahalmen kritiko osoa hustu diete.

Dena dela, bai, aurrerapenena egon da alde horretatik. Irakasleak prestatzeko programak, esaterako, justizia sozialerako interesgarriak direla esaten da sarritan. Bai, "gurutzaketaren" gaia garrantzitsua da une honetan.

Gaur egun, ordea, AEBetako arraza-tentsioak bizi-bizirik daudenez, badirudi joan den mendeko berrogeita hamarreko hamarkadako eskubide zibilen aldeko borrokara itzuli garela. Gai hori eskola publikoetan landu beharra dago. Agerikoa da gaur egun legezko babes handiagoa dagoela AEBetako biztanle beltzentzat, baina arrazakeriak gora egin du Barak Obama AEBetako lehenengo presidente beltz hautetsi zutenetik.

Ikuspegi kritikotik, langile zuriek eta beltzek baterako interesa dute arrazakeriaren aurkako borrokan eta kapitalismoaren porrotan. Kapitalismoak balio ordaingabea handiagotu eta ordaindutako balio-zatiak gutxitzen ditu, hau da, giza lana kapitalismoan ustiatzean sortutako balioa. AEBetako hegoaldeko etxaldeetako sistema kapitalista zen, eta enpresa kapitalista horretako langileek mirabetzapean lan egiten zuten. Mirabetzapeko langile afrikarrak langileen gizarte-mailako kideak ziren. Langile zuriak eta beltzak nagusitasun zuriaren biktimak dira, eta larru zuriaren pribilegioei uko egi-

ten dieten jatorri europarreko amerikarrek langile beltzekin bat egin, eta kapitalismoari aurre egiteko alternatiba sozialista bilatu behar dute.

Nire ustez, dimentsio hori garrantzitsua izango litzateke, arrazakeriaren aurkako borrokan nahiz gizakiak askatzeko prozesuan. Itxaropenik ote dago, benetan? Gaur egun, seguruenik, langile zuriek biztanle beltzak arazoaren osagaietako bat direla pentsatuko dute, eta ez irtenbidearen osagaietako bat direla. AEBetan, kapitalismoari aurre egiteko alternatiba sozialistaren kontzeptuari buruzko hezkuntza gehiago eman beharra dago. Oso gutxitan aurkituko dugu horri buruzko iritziren bat, edo, beharbada, inoiz ez.

Theodore W. Allenen maisulana irakurtzean –*The Invention of the White Race [Arraza zuriaren asmakuntza]* liburua, batez ere–, badakigu arraza zuriaren nozioa Baconen Matxinadako gerra zibileko fasean asmatu zela 1676tik 1677ra; eta, ostean, 1705ean Virginiako legeak berrikusi zirenean. Lehenago, 1619an, holandarrek esklabo afrikarrak merkaturatzen zituzten Jamestowneko "plantokrazian" kontratatutako zerbitzari moduan. Gero, esklabo bihurtu ziren.

Baconen Matxinadaren garaian, onibar-jabeen edo koloniako elitearen aurkako fakzioa nekazari txikiak osatzen zuten. Izan ere, ez zeuden batere pozik, natibo amerikarrekin merkataritzan jarduterik ez zutelako eta kostaldeko lur onenak sustatzaile dirudunei eta inbertsiogile kapitalistei esleitzen zizkietelako. Lur-sail handietako familia aberatsetako kideak ziren, eta lurraren zein larruen monopolioak zorrotz kontrolatzen zituzten. Aurkako fakzioak lurrea bera lurralde-zergetan oinarritutako pizgarrien bidez banatu nahi zuenez, jabetzarik gabekoek eta maizterrek etxaldeetako burgesiaren aurka altxatu zituzten armak.

Ulegarria zen amorratuta egotea, 1622rako Virginia kolonialeko maizter asko gosez hil zirelako artoaren laborantzan eta basoetako ehizan ezarritako murriztapenen ondorioz. 1620ko hamarkadaren hasieran, tabakoaren prezioak behera egin zuenez, maizterrak barik askoz errentagarriagoa zen kontratatutako zerbitzariak erabiltzea<sup>1</sup> lanesku-iturri nagusi moduan.

“AEBetan, kapitalismoari aurre egiteko alternatiba sozialistaren kontzeptuari buruzko hezkuntza gehiago eman beharra dago”

1 *Indentured servants* kontzeptuak Europatik Virginiara joateko garraioaren truke zenbait urtez lan egiteko kontratua sinatzen zuten emakume eta gizonekin dauka zerikusia. Horrez gain, janaria, arropa eta ostatua ere ematen zizkieten (Itzultzailearen oharra).



Horrela, kontratatutako zerbitzarien gizarte-maila iraunkorra eratu zen, eta eraginkortasun handiagoz esplotatu zitekeen kasuan kasuko gainbalioa lortzeko.

Indioen erasoek jabetza-harremanak kolokan jarri zituztenean, maizterrak zorpetu egin ziren onibar-jabeen monolaborantzarako politikaren ondorioz, landatu zezaketen tabako-kopurua murriztu zelako, haien alokairuetarako tasa finkoa ezarri zutelako eta artoa landatzea debekatu zelako. Jabetzarik gabeko jornalariak matxinatzean, 15.000 lagun elkartzen zituzten matxinoen aurka borrokatzeko prest zeuden 500 jornalari baino ez ziren geratu. Matxinoetatik, 6.000 Europako jornalari kontratatuak ziren; eta 2.000, esklabo afrikarrak. Matxinoen taldea elkarrekin borrokatu zen, garai hartan "zurien" eta "beltzen" arteko inolako bereizketarik egiten ez zelako.

Kontratatutako zerbitzariak baldintza hobeak lortzeko borrokatu ziren, eurentzat debekatuta zegoelako ezkontzea edo seme-alabak edukitzea eta 19 urtetik beherakoak 24 urte bete arte egon behar zirelako jabeen zerbitzupuan. Txiroak, ordea, ingelestzat hartu zituzten, ez zuritzat.

Garai hartan, ez zegoen arraza zuririk. 60 urteko irakaskuntzaren ondorioz sortu zen, zuritasuna jatorri europarraren erakusgarri omen zelako. Europako eta Afrikako jornalarien etsai kolektiboa estatu kapitalistako aparatua zen. Matxino gehienak Europakoak zirela kontuan hartuta, onibar-jabeek talde handiena erostea erabaki zuten. Horra hor elite zuzendariak hobetutako "banatu eta garaitu" politika.

Arrazan oinarritutako kontrol soziala ezarri zen, eta kontrol sozialerako tresna indargetzaileak esklabo afrikarrak –herentziazko eta biziarteko jornalarien baliokideak izan ziren– eta Europako jornalariak banatzea zeukan helburu. Horretarako, arraza-hierarkia horren gailurrean jarri zituen europarrak.

Onibar-jabeen gizarte-mailak (Virginian eta Marylanden, batez ere) biziarteko eta herentziazko mirabetza inposatu zien afroamerikarrei, behar beste kapital metatzen zutela eta eskulanean egindako inbertsioaren errendimendua handiagoa zela bermatzeko. Hartara, kontrol sozialerako sistema horren eraginpean, Europako jornalariak jabe txiki independenteak izan ziren, eta etorkizunean burgesia txikiko kideak izan zitezkeela amesten zuten. Horrela, bada, jabetzarik gabeko europar txiroak –"arrazazuriari" emandako pribilegioen bidez egunen batean gizarte-maila ertaineko kideak izan zitezkeelakoan– igo

« Arraza zuriaren asmakizuna gizarte-maila zuzendariaren kontrol sozialerako gailua izan zen, eta Baconen Matxinadako gerra zibilaren etapan langileek erakutsitako elkartasunari erantzutea zeukan helburu »

egin ziren, eta gizarte-maila indargetzailea osatu zuten, zuri txiroen eta esklabo afrikarren artean onibar-jabeak boteretik kentzeko moduko aliantza hori eratu ez zezaten. Afroamerikarrak baino pribilegiatuagoak zirela egiaztatzeko, zuri berri horiek askatasunak ukatu behar izan zizkieten afroamerikarrei, eta ezin izan ziren elite zuzendariaren aurka borrokatu. Orduan, gizartean eratu, eta euren zuritasunagatik afroamerikarren gainetik zeudela adierazten zuen kontzeptua suspertzen hasi ziren europar txiroenak. Halaxe asmatu zuten arraza zuria! Esklavo afrikarrentzako eta afroamerikar askeentzako baldintzak latzagoak ziren, ordea.

Horren guztiorren ondorioz, euroamerikarrak eroso finkatu ziren arraza zuri asmatu berriaren lerro eta loturen barruan. Arraza zuriaren asmakizuna gizarte-maila zuzendariaren kontrol sozialerako gailua izan zen, eta Baconen Matxinadako gerra zibilaren etapan langileek erakutsitako elkartasunari erantzutea zeukan helburu (1676-1677).

Modu berean, antzeko fenotipoa eduki arren, britainiarrek katoliko irlandarrei egin zieten eraso, geroago zapalkuntza nazional bihurtu zen arraza-zapalkuntza erlijiosoaren bidez. Britainiarrek Ulsterren eta beste leku batzuetan garatutako arraza-zapalkuntzako biktima horiek –irlandarrei "Europako tximino zuriak" esaten zieten– afroamerikarren arraza-esklabotzapean AEBetako hegoaldean arraza-zapalkuntza defendatu zuen "arrazazuria" izan ziren geroago.

Gaur egun ere, arraza-zapalkuntza horrek bere horretan dirau espetxe eta industria arloko "New Jim Crowen" eskutik [bereizkeria-sistema], hau da, eskola kartzelarekin eta beste zapalkuntza-araubide batzuekin lotzen duen bidea. Hori dela eta, badago arrazakeriaren aztarnaren atzetik joaterik kapitalismora eta gizarte-mailen borrokara arte. Dena dela, ez da gauza bera arraza gizarte-mailara murriztea. Agerikoa denez, pribilegio zuria, nola garatu

den kontuan hartuta, langile guztien interesen aurkakoa da, baina oso garrantzitsua da arrazakeriaren, pribilegio zuriaren eta kapitalismoaren historiaren artean nolako lotura dagoen zehaztea.

Historia hori arakatu eta lotura horiek ezarri behar ditugu hezkuntza kritikoaren ikuspegitik.

**Gizartea, oro har, eta irakasleak, batez ere, despolitizatu egin direnez, –gero eta sarriagotan– gaitzes-ten da aldaketa sozialarekin konpromisoa daukan nahitako hezkuntza. Nola jarraitu hezkuntzaren dimentsio politikoaren defentsa argudiatzen?**

**Peter:** Hezkuntza neoliberalaren helburu handia da ideologiari begira ikasleen subjektibotasunak merkatu globalera egokitzea, lan-indar zehatzetarako hezten dituztelako. Horren bidez, hain zuzen ere, nazioz gaindiko ekonomia kapitalistaren interesen menpe egongo dira, eta Gramscik aipatutako estatu integrala eratzen lagunduko dute. Alde horretatik, ikasleak historian zehar daramatzate arrastaka, Molochi egindako eskaintza izango balitz bezala. Desjabetzearen jainko horrek despotismo estatal bortitzaren bidez ateratzen du gainbalioa soldatapeko langileetatik<sup>2</sup>, eta kapitalistak jabetzapean hartzen du irabazi moduan, produktua saltzen denean. Zentzu horretan, ikasleak historiako subjektu pasiboak dira, euren partaidetzapean eratzen ari den historiako eragile aktiboak izan beharrean.

Irakasleek ekonomia kapitalistarentzat modu egokian diseinatzen diren curriculumen arabera irakasten dute. Edonola ere, ezin txarragoak dira beharrezko agentzia kritikoa sortzeko orduan, nahiz eta planetari bizirauten eta nazioei euren gailu ekonomiko, politiko eta ideologikoen bidez bilakatzen lagundu, auzokoekin eurekin bakean bizi daitezen.

John Marshak dioenez (2011), hezkuntza fenomeno politikoa –eta ez merkatukoa– izango balitz bezala landu beharko litzateke, eta argudio horrek pisu handia dauka. Marshen esanetan, AEBetan ez da beste herrialde batzuetan baino txiro gehiago sortzen.

2 "XIX. mendearen amaieran, Karl Marxek gainbalioaren kontzeptua garatu zuen zabal-zabal. Izan ere, edozein ekoizpen-ekintzatan giza lanaren ondorioz sortutako diru-soberakina baino ez da, eta kapitalistak edo enpresariak "dohainik" eskuratzen du (teoria marxistaren arabera). Iturria: <<http://economipedia.com/definiciones/plusvalia-economia.html>>.

Europako herrialdeek txirotasun-tasa txikiagoak dituzte, txiroak eta langabeak babesteko programa gehiago dituztelako. AEBetan, hezkuntzan oinarritutako politikadun gizarte-segurantzak ezarri beharko genuke. Horren ordez, zergadunen dolarrak darabil-tzagu, mundu zabalean 700 base militar –gutxienez– dituzten indar armatuak handitzeko, eta horrelako base batzuk hiri txikien tamainakoak direla esan beharra dago. Seguruenik, hezkuntza onak lanera-tzen lagunduko lioke jendeari, eta, zeharka, beste lanpostu batzuk ere sortu litzake. Hala ere, honakoa da gaur egungo sistema kapitalistan ez daukaguna: enpleguen sorrera zuzena, soldata handiagoak eta birbanaketarako programa hobekak.

**Subjektu politikoak subjektu egiten dira eraldaketarako prozesuan bertan. Hezkuntzako zer oinarritan gertatzen da aldaketa hori? Nola hitz egin ahal izango dugu zapalkuntza eta desberdintasuna gehien jasaten dituztenekin?**

**Peter:** Ez dugu bakarrik bat egin behar gizarte-mai-la kapitalistaren zaindarien eskutik iristen zaizkigun interpretazio ideologikoekin. Izan ere, prest egon behar dugu, komunikabideen bitartez maiztasun tamalgarriz iragazten diren iruzurrezko oinarri guz-tiak kolokan jartzeko. Herkulesen hamabi zeregi-netatik bosgarrenak diodenaren arabera, Eurysteok Augias erregearen ukuiluak garbitzeko agindu zion. Inguruko komunikabide kapitalisten bidez meta-tzen dugun gorozki ideologikoa araztu behar dugu (publizitaterako hesiak, iragarkiak, telebistako zein ordenagailuetako jokoak, aldizkariak...), eta, horretarako, alfabetizazio kritikoak garatu behar ditugu, nire aholkularia izandako Paolo Freirek aipatutako kontzientzia kritikoa, alegia.

**Behin baino gehiagotan esan duzu pedagogia kri-tikoa mugimendu sozialtzat, proiektu zabalagotzat hartu behar dugula. Baduzu ideia hori garatzerik? Baduzu *matxinadaren pedagogiak* hezkuntza kri-tikoan egindako zenbait ekarpen sakonago azter-tzerik?**

**Peter:** Gaur egungo gazteek eskubide zibil esta-tubatuaren mugimenduetan parte hartzen dute, baita nazioz gaindiko lesbianen, gayen, bisexualen, transgeneroen eta queeren mugimenduetan (LGBTQ), borroka feministako zenbait aukeratan, mugimendu ekologistetan eta ingurumenaren arloko justiziakoe-tan, langileen mugimenduetan, militarren aurkako mugimenduetan eta etorkinen eskubideen aldeko mugimenduetan ere.


AEBetako gazteak ez ezik, Greziako, Turkiako, Egiptoko eta beste herrialde batzuetako gazteak ere badaude borroka horietan. Munduko leku guztietan, honako ekintza hauetako lekukoak eta parte-hartzaileak dira gazteak: biltzarren aurkako ekintzak; topaketa zapatistak; hersturaren aurkako mugimenduak; etorkinei, langile etorkinei eta errefuxiatuei laguntzeko mugimenduak; bortxaketen eta "ohorezko" hilketen aurkako mugimenduak; eta kalkulu ekonomikotik zein lehiakortasunetik harago balioa sorrarazten duten jarduera sozialak eratzeko mugimenduak.

2011. urtean, honako ekintza hauek gertatu ziren: Txileko ikasleen mobilizazioa; Nigeriako gazteen aktibismoa, Niger ibaiko deltako petrolio-gunean; Tunisiako, Egiptoko eta Libiako gobernu-estamentuen aurkako protestaldiak; Portugalgo, Espainiako eta, batez ere, Greziako gazteek herstura-neurrien aurrean erakutsitako erresistentzia; Hego Afrikako eskola publikoetako ikasleen borroka, oinarriko instalazioak lortzeko, liburutegia, esaterako; AEBetako "Ocupa Wall Street" mugimendua... Guztiek gero eta hedatuago dagoen erantzunaren kulturako partaideak direla esango nuke.

Horrelako mugimendu asko elkarrekiko elkartasun-jarduera sozialetan inspiratu dira; esate baterako, "Idle No More" mugimendua ("Akabo ekintzarik eza"), "Ocupa Wall Street" mugimendua, Gezi parkeko eta Syntagma plazako mugimenduak, "Espainiako M15eko mugimendua" (haserretuak), "Juventud Sin Futuro" eta "Democracia Real Ya". Euren elkarketak horizontalean daude lotuta, eta sare bertikaletatik kanpo daude. Haien barruan, gainera, merkatua babestuta dago, eta nagusi ere bada.

Honakoa izan dute inspirazio-iturri: oinarriko demokraziaren bidezko lankidetzak soziala; adostasuna; elkarriketa; bestearen aitortpena; eta tokikoa, enplegua, gizarte-baldintza, generoa, adina, arraza, kultura, orientazio sexuala, hizkuntza, erlijioa eta sinesmenak gainditzen dituzten formak. Gainera, ordezkartzako demokraziari barik, partaidetzazko demokraziari eta demokrazia zuzenari ematen diete lehentasuna.

Laburbilduta, "bateratasun globala" sustatzen dute. Termino oaxacar horren esanahiak antzekotasun handia dauka elkartasunarekin, baina luzarorako elkarrekikotasuna eta derrigorrezkotasuna ere azaldu behar dira. Nolanahi ere, aurkitutako erresistentzia ankerra bezain hilgarria izan da. Bestela, ikusi



Irudia: *Pedagogy of insurrection* liburuaren azala.

dezagun zer gertatzen den Mexikoko irakasleekin. Oaxanako Nochixtlaneko irakasleak eta Hezkuntzako Langileen Koordinakunde Nazionala (CNTE) une honetan jasaten ari diren eraso bortitzei buruz ari naiz: Mexikoko itsas armadako infanteek eta Errepublikako Prokuraduriako polizia zitalek (PGR) justiziaren alde mobilizatzen direnak erailtzen dituzte, Peña Nieto presidente neoliberalaren administrazioak garatutako "hezkuntza-eraldaketaren" aurkako protestaldiak egiten dituztenean!

Zer esan Mexikoko Iguan hildako Ayotzinapako Landa Ingurune Eskola Arrunteko 43 ikasleei buruz! Eskolako irakasleak izatea zen gazte ekintzaile haien ametsa. Hori guztiori gutxi balitz, Ayotzinapako 43 ikasleen familiek Mexiko Hirian egin beharreko Ayotzinaparako Ekintzaren XXI. Biltzar Globalera joateko erabili zuten ibilgailuari harriak bota zizkieten Cuernavaca parean, Chiaplanetik hurbil.

Indarkeriak indarkeria, gizarte berria hortxe dagoela adierazten ari da. Borrokek, ordea, bere horretan dira Oaxacan, Chiapasen, Queretaron, Guerreron, Mexiko Hirian eta Cheraneko nahiz Michoacaneke hiri indigenetan.

Orain dela urte batzuk, Cheraneko eztabaida bazuetan parte hartzeko aukera izan nuen, eta, bertan, "autodefentsak" edo milizia bateratuak izan genituen hizpide, besteak beste. Azken batean, gizon armatuek babestutako ehunka kamioi Pure'pecharren lurretan ari ziren sartzen eta zuhaitzak erauzten. Borrokak bere horretan dirau Mexiko osoan, eta ihardukitzaileek bidesarietako etxolak, gobernuko instituzioak, gasolindegia, findegia eta lantegiak okupatzen dituzte.

Aleida Guevara Marchek, Ernesto Che Guevararen alabak –orain dela urte batzuk, aitaren ondasun batzuk erakutsi zizkidan, eta AEBetako inperialismoak Latinoamerikan daukan eraginari buruz hitz egiteko aukera izan genuen–, oraintsu hitz egin du Rio de Janeiroko Maricako Utopiaren Nazioarteko Jaialdian. Bertan, berriro ere adierazi zuen ezkerrikosten jarraitu behar duela eta justizia sozialerako dituen eskaerak biztanleen benetako arazo eta egoeretan oinarritu behar direla. Jarrera hori, hain zuzen ere, Paulo Freireren alfabetizazio kritikoa ardatz nagusietakoa izan zen. Ekitaldi handi horre-



Peter McLarenek lagatako irudia.

tan, Brasilgo, Kubako, Vietnamgo, Indiako, Txinako eta Venezuelako gazteen ordezkariak parte hartu zuten. Guztira, 500 lagun bertaratu ziren, gutxi gorabehera. Hizlarien artean, Vandana Shiva, Tariq Ali eta Danny Glover aktore estatubatuarra zeuden. Brasil egoera zailean dago orain, Dilma Rousseff presidentea kargutik kendu ondoren. Brasilgo ezkerreko buruzagiek, Movimento dos Sem-Terra (MST), Movimento dos Trabalhadores Sem-Teto (MTST) eta Movimento Luta Popular (MLP) kontuan hartuta, Paraguaiako Fernando Lugoren aurkako 2012ko es-tatu-kolpearekin edo Hondurasekoarekin parekatu dute egoera hori. Euren ustez, hersturarako eta zorpeketarako politika neoliberalak ezartzeko diseinatutako ekintzak dira.

laz, MSTko kide batek Chapman Universityko Paulo Freire Proiektu Demokratikoa bisitatzeko eskaera egin zigun, eta, bisitaldian, pedagogia kritiko iraultzaileak justizia sozialaren aldeko borroka globalean zeregin aktiboagoa nola eduki dezakeen izan genuen hizpide.

Orain dela gutxi, milaka dozena ihardukitzaile Argentinako Buenos Aireseko Pueyrredon zubian elkartu ziren, Eduardo Duhalderen presidentetzapean 2002an hiri horretan poliziak tiroka hildako Dario Santillan eta Maximiliano Kosteki ekintzaileekin omenez. Santillan "Anibal Veron" Langabeen Mugimenduko kidea zen, 21 urte zituen eta tiroka hil zuten Avellanedako aldirietan, FMIk inposatutako herstura-neurrien aurkako protestaldian parte hartzen ari zela. Kosteki ekintzaile argentinarra margolaria zen, eta polizia probintzialak erail zuen Avellanedako piketean protesta egiten ari zenean. Era berean, azken diktadura militarren esku desagertutako 30.000 lagunentzako omenaldia ere egin zuten.

Orain dela zenbait hilabete egon nintzen Argentinan, eta Mauricio Macri indarreko presidentearen hautagaitzarekin adi egoteko esan nien. Izan ere, langabeen kopuruak gora egin du, eta tokiko zerbitzuen tarifak igo egin dira.

Zer esan Venezuelari buruz? Bihotza erdibitzen zait. Estatu Batuen babespean, Estatu Amerikarren Erakundeak Venezuelaren aurkako zehapenak ezarri nahi ditu Amerika Arteko Gutun Demokratikoaren sorreraren bidez.

Orain dela gutxi, Luisa Ortégak, Venezuelako fiskal nagusiak, herrialdeko Justiziaren eta Egiaren aldeko Batzordeak egindako ikerketako emaitzak eman zi-

“Mundu hobea eratzeko saialdietatik aldendu behar gara, horretarako darabiltzaten kategorietatik kolokan jartzen ari garen zapalkuntza-egitura berberak eratu direlako”

tuen argitara. 1958tik 1998ra (1998ko Iraultza Boliviariarra baino lehen), desagerpen, tortura eta hilketak politikoekin zerkusia daukaten 11.043 kasu azaldu dira guztira. Sarraski horiek Venezuelako Laugarren Errepublikan gertatu ziren, Hugo Chávez presidentetzara iritsi baino lehen. Chávezen agintepean, Venezuelak aurrerapauso handiak eman zituen, ustelkeriari eta giza eskubideen abusuei aurre egiteko. Chávez hil zenetik gorabehera larriak egon diren arren, Iraultza Boliviariarra bertan behera uzterik ez dagoela uste dut.

Une honetan, ikuspegi malguaz ari gara lanean, eta guztia kontuan hartzen duen ikuspuntua darabilgu. Mundu hobea eratzeko saialdietatik aldendu behar gara, horretarako darabiltzaten kategorietatik kolokan jartzen ari garen zapalkuntza-egitura berberak eratu direlako.

Esate baterako, idatzi berri dudan liburuan, Jesusen mezu komunista dut hizpide, eta argudiatu egiten dut Marx eta Engels Jesusen ikasbideen eta ebanjelioetako mezuaren eraginpean zeudela erabat. Orain, ordea, Liberazioaren Teologiaren ikuspegitik, Latinoamerikaren ikuspegitik ari naiz idazten. Nire aholkularia, Paulo Freire, kristaua zen, eta oso gustuko zuen Marx. Nahiz eta inoiz berarekin liberazioaren teologiari buruz eztabaidatzeko aukerarik eduki ez nuen, elkarriketa liluragarria izango zela uste dut.

Nire iritziz, kontzientzia kritikoa funtsezkoa da Liberazioaren Teologian. Izan ere, kristauek aitortu egiten dute lehentasunezko aukera dutela txiroei dagokienez. Nik neuk lehentasunezko betebeharra dela esango nuke.

Ez dakit zuon irakurleen artean zenbatek izango duten behar besteko adina Salvadorren jazotako bi gertaera ikaragarri bezain ankerrak gogoratzeko. Gertaera horiek 80ko hamarkadan jazo ziren, 1979tik 1992rako diktadura militarrean hasitako Gerra Zibilean. 1989ko azaroan, bost apaiz eta bi emakume erail zituzten “José Simeón Cañas” Erdialdeko Ame-

rikako Jesuiten egoitzatik kanpo –UCA– (San Salvador). Bestetik, hori baino 9 urte lehenago, 1980. urtean, Óscar Arnulfo Romero artzapezpikua (beatifikatu egin dute) tiroka hil zuten, ospitaleko kapera-txoan meza ematen ari zenean.

1970eko hamarkadan erregimen militarra boterera heldu aurretik, jesuitak euren lana berriro zehazten eta orientatzen hasi ziren, Medellinen deiarekin bat egiteko itunpeko ahaleginean, elkarrekin eta inolako erreserbarik gabe egon nahi zutelako boteretik gabeko nekazari txiroekin. Euren iritziz, babes aktiboa eman behar zieten eraldaketa sozial, ekonomiko eta politikoak sustatu zituzten mugimenduen eta nekazarien eskubideei.

Erregimen militarrek iraun bitartean, Aita Ignacio Ellacuríak, UCAko errektoreak (1965ean sortutakoa), zeresan handia izan zuen menderakuntza militarren hamarkada gorabeheratsuan, unibertsitatearen misioa zehaztu baitzuen berriro, eta, horren ondorioz, elkartasuna adierazi zitzaielako herrialdeko gehiengodun txiroei.

Isilpean eta ikaraz, nekazariak gobernu-eraldaketak behar zituzten ezinbestean. Era berean, elizaren laguntza ere behar zuten, erregimen militarren eskala handiko torturetatik eta hilketak jendetsuetatik babesteko. Medellinen lengoaiaren oihartzunpean, 1979ko unibertsitatearen xedeak lotura estua zeukan herriari eskaini beharreko zerbitzuarekin. Izan ere, zentzu zabalean, zapalduetako jendeak berak orientatzen zuen unibertsitatearen misioa.

Agerikoa denez, Aita Ignacio Ellacuríaren eta UCAren xedeen ondorioz, Estatu Batuetako laguntza finantzario eta politikoaren jarraipena mehatxupean egongo zela uste izan zuen Salvadorko gobernuak. Estatu Batuen babespeko diktadurak bazekien Estatu Batuetako Kongresua Salvadorko aliatuaren giza eskubideen urraketengatik kezkatzen hasi behar bazen, ezinbesteko laguntza hori kendu ahal izango ziola. Hala ere, beste faktore bat zegoen jokoan: Medellingek justizia sozialari buruz emandako ikasbideek –Óscar Romero artzapezpiku martiriaren adibidea– jesuiten euren artean izan zezaketen berehalako eragina.

Aita Ellacuría unibertsitateko erailketetako biktimen artean zegoen. Handik gutxira, Eric Warren Buckland komandanteak, Estatu Batuetako goi-mailako aholkulari militarrek, aitortu egin zuen Salvadorko homologoak, Carlos Armando Avilés Buitrago koronelak, Salvadorko Komandantzia Bateratuko Eragiketako Psiko-

logikoetako buruak, alde aurretik jakinarazi ziola planifikatutako sarraskia izango zela. Geroxeago, ordea, bere lekukotasuna ukatu zuen presiopean.

Joan Paulo II.a komunismoaren aurkakoa zen, eta Liberazioaren Teologia elizarentzako fenomeno arriskutsua zela uste izan zuen. 1970eko hamarkadaren amaieran, aita santu hautatua izan baino lehentxeago, zuzenean aurka egin zion Liberazioaren Teologiari, eta elizako hierarkiak irmo egin zuen eskuine-rantz. Ratzinger kardinala (geroagoko Benedikto XVI.a aita santua) aukeratu zuen, liberazioaren teologoaren interpretazioei eta ekintzei aurka egiteko. Ez zen halabarrezkoa izan Joan Paulo II.ak Latinoamerikara hainbat bidaia egin izana. 1983an, aita santuak Nikaragua bisitatu zuen, Aita Ernesto Cardenali errieta egiteko eta Liberazioaren Teologiari aurka egiteko. Zorionekoa izan nintzen, Ernesto Cardenal bera ezagutu ahal izan nuelako 2006an Hugo Chávez presidentek zuzendutako telebista-saio batean. Joan Paulo II.ak Ernesto Cardenal bota zuen apaizgotik, Liberazioaren Teologiarekiko konpromisoa hartu zuenean. Zorionez, Frantzisko aita santuak erabaki hori ezeztatu zuen 2014. urtean.

Gaur egun, AEBetan aurrerapauso handiak eman dira Kubarekiko harremanak normalizatzeko. Aldi berean, ordea, Estatu Batuek ez dute Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (PIDESC) berretsi nahi, eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna baino ez dute berretsi. Estatu Batuek ez dute PIDESCekiko konpromisorik eduki nahi, nahikoa agerikoak diren arrazoi irriagarriengatik: AEBen ustetan, eskubide ekonomiko, sozial eta politikoak sozialismoaren parean daude. Gogoan dut orain dela urte batzuk horrelako hipokresiar buruz hitz egiteko aukera izan nuela Aleida Guevara Marchekin, Havanan bertan.

Estatu Batuek bete-bete gaitzesten dituzte Kubako giza eskubideen abusuak, baina ez diete inolako jaramonik egiten etxebizitza, osasun-zainketak edo gizonen zein emakumeen soldaten berdintasuna eskuratzeko aukera unibertsala bermatu duten politika kubatarrei.

Zuon ustez, Estatu Batuek barkamenik eskatuko ote dute inoiz, 1976an bidaiarien hegazkina leherrarazteagatik; 1961ean Giron hondartza inbaditzeagatik; erbesteratu kubatarrei txerri-izurria kutsatzeagatik eta Kuba milioi erdi txerri hiltzera behartzeagatik; indioilar kubatarrei Newcastleko gaitz hilgarria kutsatzeagatik eta 8.000 indioilar hiltzeagatik; den-

ge-izurritea sortzen duen eltxoa desagerrarazteko pestizida Kubara bidali nahi ez izateagatik; Kuban ondasunik eta dirurik ez sartzeko blokeo gupidagabeari eusteagatik; edo Fidel Castro hainbat aldiz erailtzen saiatzeagatik (zenbait txostenen arabera, 600etik gora atentatutatik irten da bizirik)?

AEBetako irakasle progresista garaikideek oso gustuko dute arrazoinamendu dialektikoa alde batera uztea edo gaitzestea, eta, nire ustez, hori porrot ikaragarria da gure bizitzako prozesu garrantzitsuenak kontuan hartzeko orduan. Txertatutako banakotasunaren [*embodied selfhood*] zentzu arruntaren euskarria hautsi behar dugu; alde aurretik zehaztutako neurona-sareen sistema birbideratu behar dugu, inperio neoliberalari aurre egiteko modu sortzaileak aurkitu ahal izateko; gradiente berria da, orientazio-zentzu berria eta ez azken emaitza, helburu finkoa edo omega puntu handia, ezinbestean.

Ikuspegi dialektiko berria ezarri beharra dago, gainbalioaren ekoizpen kapitalistatik kanpo dagoen unibertso soziala nolakoa izan litekeen jakiteko. Markek abian jarritako kritikaren handitasuna arakatu behar dugu. Gainera, aniztasun teorikoa lortzeko ahalegina egiten ari garenez, oso goiztiarra izango litzateke kritika bera puntu honetan ixtea. Gure zeregina osagabea da funtsean, gure helburuen bila gabiltzanean. Freirek aipatutako "ezezagun bideragarria" daukat hizpide.

Modu dialektikoan arrazoitzeko eta humanismo marxistan oinarritutako praxiaren filosofia eratzeko gai ez garenez, itotzen ari gara (hemen, Estatu Batuetan), Armagedonen kultura horretako haize bortitzen, adierazpen apokaliptikoen eta Donald Trumpen eskuin-muturreko konspirazioaren teorien ondorioz. Izan ere, nazioarteko zenbait bankarik mundua omen dute kontrolpean, eta AEB elite korporatibo globalizatzailearen lorratzpean uzten ari dira. Hori dela eta, zuri txiroak Nazio Batuetako helikoptero beltzen zaintzapean daude, eta honako talde hauek irentsi dituzte: Black Lives Matter, era guztietako etorkinak, musulmanak, feministak, mendebaldeko kostaldeko ekintzaile ekologistak eta Sodomian bertan aisialdiaren industria kudeatzen dutenak. Edonola ere, mundu osoa zirkuko zuzendariaren edo edertasun-lehiaketako epailearen begiradaz epaitzen duen nazioz gaindiko kapitalismoko bilioidun hori izango da langileei min handiena emango diena.

Zeruko erreinua ez da bat-batean agertuko etorkizunetik atzeraeraginez jazartzen gaituen apoka-

“ Ikuspegi dialektiko berria ezarri beharra dago, gainbalioaren ekoizpen kapitalistatik kanpo dagoen unibertso soziala nolakoa izan litekeen jakiteko ”

lipsiaren ostean. Garaien amaiera oraintxe bertan gertatuko da, eta, horrez gain, justizia sozialaren aldeko borrokaren ondorioz izango da berehalakoa. Borroka horren arabera, bat egin behar dugu, eta balioa ekoizten duen sistema kapitalistatik kanpo dagoen unibertso soziala nola sortu asmatu behar dugu. Hezkuntzak zeresan adierazgarria izan beharko luke borroka horretan, baina ez du halakorik eduki.

Hori guztiori dela eta, pedagogia kritikoa nazioz gairik mugimendu sozial moduan bultzatzen saiatu naiz, hezitzaile progresistei kapitalismo garaikideko arazoei aurre egiten laguntzeko eta alternatibak bilatzeko. Aurrez aurre dugun kapitalismoak genozidioa, ekozidioa eta epistemozidioa sorrarazi ditu; azken termino horrek herri indigenen jakintza-moduen abolizioarekin dauka zerikusia. Beraz, iraultza luzea dugu aurretik.



Peter McLarenek lagatako irudia.



Nortzuk gara • Martxoak 3 elkarte

Hemen aurkituko gaituzue • [www.martxoak3.org](http://www.martxoak3.org)  
[www.gasteizm3m.org](http://www.gasteizm3m.org)

## Martxoaren 3ko Gasteizko biktimen elkarte, iragana eta etorkizuna

Memoria historiko kolektiboa berreskuratzea eta subjektu politiko berriak bilatzea harreman gehiegirik ez duten ideiak dira, itxuraz; izan ere, memoria historikoa berreskuratzeak iraganarekin du lotura, eta subjektu politiko berriak bilatzea, berriz, etorkizunari dagokio. Bereizketa hori, ordea, denborazko ikusmolde batean dago oinarrituta (kapitalismo postmodernoaren ikuspegian, hain zuzen ere), eta, horren arabera, bada orainaldi puru bat, gaitasunik ez duena ez gogoratzeko ez aurreikusteko.

Denborazko ikusmolde holistikoa, aldiz, zeinetan oraina eta etorkizuna estu lotuta dauden (prozesu beraren parte baitira), lotura estua dute bi ideia horiek. Horregatik da beharrezkoa iragana gogoratzeko, etorkizuna eraikitzeko.

Esate baterako, 76an Gasteizen izandako langile borrokak iraganaren parte dira, baldin eta zer egoera politiko, sozial eta ekonomikotan gertatu ziren hartzen badugu kontuan; baina, era berean, etorkizunari begiratzen diete, kontuan hartzen badugu zer tresna emantzipatzaile baliatu ziren orduko hartan.

Frankismoaren amaieran, bizkor hazten ari zen hiri batean, Gasteizen, bereziki industrian oinarrituta zegoen ekoizpenarekin, langileria berri eta indartsuarekin (migratzaileak asko eta asko), legezko alderdirik eta sindikaturik gabe... borroka asanbleario bat sortu zen, horizontala, emakumeen parte-hartze bereziarekin, bateratua erreibindikazioei eta borroka metodoei dagokienez, biztanleria osoaren solidaritateari dei egiten ziona...

Gaur egun, guztiz bestelakoa da egoera: ekoizpenaren arloan zerbitzuak dira nagusi, langileria ahuldu egin da, alderdiak eta sindikatuak burokratizatu egin dira, ezegonkortasun gero eta handiagoa dago lanaren arloan, eskuin mutur xefonoboak gora egin du... Baina, egoera horretan, batzarrean oinarritutako sistema aldarrikatzen duten herri borrokak sortu dira berriro -15Mkoen ondoren batez ere-, alderdi tradizionalen sistema kritikatzeko dute (ez gaituzte ordeztu) eta langileria ezegonkorraren ahalduzua bilatzen dute, pobrezia feminizazioa salatzen dute eta antolamendu bide berriak bilatzen dituzte.

Era horretara, iragan berriaren memoria kolektiboa berreskuratze hori (Gasteizko hiriaren zimenduak ere astindu zituzten borrokak) aldaketa sozial eta politikoaren subjektu berriei zuzenduta dago, iraganeko esperientziez baliatu daitezkeen beren etorkizunerako bideari argitasuna emateko.

Horregatik, hezkuntzaren eta komunikazioaren arloko tresnak jarri dira abian, sektore sentibera horiengana iristeko, hainbat balio partekatzen baititugu horiekin, besteak beste, berdinen arteko solidaritatea eta kapitalismoaren kontrako borroka.

Martxoak 3 memoria 1976-2016, Gasteizko Zaramaga auzoan kokatua (borroken epizentroan, alegia), ahalegindu da martxoaren 3ko sarraskia testuinguruan kokatzen, eta, horretarako, langile auzo horren intrahistorian arakatu da, aurreko mendeko 70eko hamarkadaren amaieran, hain justu.





Irudia: Sandra Santosen fotomuntaketa.

Hiletak eta horien zigorgabetasuna salatu nahi dira, baina, batez ere, bala hiltzaileek inausitako borroka haien oinarrian zegoen sentimendu sakonaren gainean jarritako ahanzturaren kontra borrokatu nahi izan da: greben helburuak –gaurkotasun handikoak batzuk–, gasteiztar gehienen solidaritatea, “trantsizio demokratikoak” aurretik antolatuta zegoen al-daketa sozial sakonik gabe gainezka egitea... horrek guztiak arriskutsuegia bihurtu zuen mugimendu hura elite nagusientzat.

Artearen eta kulturaren tresnak erabiltzen osatu da kontzientziazte zeregin hori (kontzientzia soziala lortzea, alegia): bideo artea, literatura kontakizuna audiogiden bitartez, eskolan lantzeko unitate didaktikoak, instalazio artistikoak, *Street Art* izenekoa, musika... gure mezua argitasun handiagoz zabaltzeko eta emoziotik abiatuta motibazioa sortzeko erabili dira, ez bakarrik arrazoitik abiatuta, baita enpatiatik, oinaze partekatutik eta etorkizun hobea lortzeko ilusiotik abiatuta ere.

Batez ere emakumeek parte hartu dute memorial horretan, 5 emakume artistak<sup>1</sup> Zaramaga auzoan egindako 5 esku-hartzerekin, aire zabaleko museo bihurturik. Memorial horretan, halaber, emakumeek 76ko borroketan bete zuten garrantzizko zeregina azpimarratzen da: emakume langileak greban eta

langileen neska-lagunak greban, borroketan subjektu bereizi gisa ekin ziotenak jabekuntza prozesuari. Ibilbide hark ekarri zuen, hain zuzen ere, Arabako Emakume Batzarraren sorrera.

Urteurrena betetzen den urte hau –40 urte dagoeneko– bereziki emankorra izan da borroka haiek eta amaiera tragiko haiek sozializatzeko eta zigorgabetasuna salatzen zereginean. Eta, era berean, emankorra izan da, egia, justizia eta ordaina eskatzeko erreibindikazioek nazioartean izan duten oihartzunari dagokionez. Aurten izan da argentinar krimenen kontrako kereila, aurten modu erabakigarrian inplikatu dira udalak, bai eta inpunitatearen kontrako borrokaren eremuko erakundeak ere, tokian tokikoak, autonomikoak zein europar eremukoak...

Hori guztia ez litzateke posible izango azken urteotan elkartek egin duen lanagatik ez balitz: ehunka hitzaldi, manifestazioak urtero, txostenak, jardunaldiak... Jarduera horietako asko kontrako baldintzetan egin dira, poliziaren errepresioa barne, ez dela horrenbeste denbora.

Alabaina, zenbaitek ulertu ezina eta gutxiespena sentitzen badu ere, oso hurbiletik sentitu da gasteiztarren hats solidarioa, zeinak uko egiten dion ahazteari, eta horrek aurrera egiteko indarra eman du, haizea kontra dela batzuetan, iragana eta etorkizuna den borroka horretan.

1 Txaro Arrazola, Marta Gil, Verónica Werckmeister, Irantzu Lekue eta Sandra Santos dira memorial honen kolaboratzaileak. Askotariko jatorria dute, eta ibilbide profesional zabala eta lotura berezia Gasteiz hiriarekin.



carta de los derechos sociales **euskal herriko eskubide sozialen Karta**

Nortzuk gara • Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta  
Hemen aurkituko gaituzue • [www.eskubidesozialenkarta.com](http://www.eskubidesozialenkarta.com)

## Eskubide sozialen gutuna, batzen duen esperientzia

Euskal Herrian, mugimendu sindikal eta sozialak aurre egin die austeritate-politikei. Hori dela eta, euskal arloko sindikatuok greba orokorrerako deia egin genuen 2009ko maiatzaren 21ean, zerga, aurrekontu eta gizarte arloko politikak aldatzen ez baziren, desberdintasuna eta txirotasuna nabarmen hedatuko zirela adierazteko. Horren ostean, beste greba batzuk ere egin ziren. Horrelako erantzun sindikala, ordea, ez da Europako beste leku batzuetan eman, Grezian izan ezik.

Egindako bideko beste berezitasun bat aipatzearren, 2012. urtetik aurrera sindikatuen (guztiena, Langile Batzordeak eta Langileen Batasun Orokorra izan ezik) eta gizarte-erakundeen elkargune iraunkorra eratu zen, eta, bertan, honakoek parte hartu zuten, besteak beste: erakunde feministak, ekologistak, gobernu kanpoko erakundeak edo gizarte-bazterketaren aurkako mugimenduak. Gune Plataformaz ari gara. European, ez zen sekula halako plataformaren antzeko esperientziarik garatu. Horren ondorioz, hainbat mobilizazio bultzatu ziren, eta, bertatik, hurrengo greba orokorretarako deiak egin ziren.

Hartara, mobilizazioen dinamika biziaren ostean, 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorrerako deialdian murrizketei (lan-erreformei, pentsioen murrizketei...) aurka egiteko ekimenetik harago joango zen prozesu soziala jarri zen abian, eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna eratzeko deia egin zen.

Eskubide Sozialen Gutunean, defendatzen genuen Euskal Herri alternatiboa marraztu, eratu, hitzartu eta adostu behar zela. Apustua zen. Gutuna egiteko prozesua modu deszentralizatuan egin zen. Ehun bat

herri eta auzotan, zenbait bilera antolatu ziren, euren ekarpenak egin zitzaizten.

Urtebete geroago, Gutuna onartu zen Batzarrean. Esparru horretan, hain zuzen ere, biziaren iraunkortasuna da nagusi. Horretarako, ardatz nagusi moduan xedatzen da jarduera ekonomikoa pertsonen eta planetaren zerbitzura egon behar dela, natura bera eskubidedun subjektua dela eta, zainketen krisiari aurre egiteko, ordaindu gabeko lana aitortu, duindu eta banatu egin behar dela.

Gutunaren eduki ekologista, feminista, sozial, sindikal eta internazionalista nabaria da. Balio eta garrantzi handikoa da hainbaterakunde sozial eta sindikalek euren gain hartu izana, gizartearen goitik beherako aldaketaren aldeko apustuaren erakusgarri baita.



Irudia: Euskal Herriko Gizarte Eskubideen Gutunaren Koordinatzaile Nazionalaren argazki-artxiboa.



Irudia: Euskal Herriko Gizarte Eskubideen Gutunaren Koordinatzaile Nazionalaren argazki-artxiboa.

Eskubide Sozialen Gutunean, 2015eko urtarrilean zenbait aldarrikapen zehaztu ziren Programa Sozialaren babespean. Bertan, berehala ezarri beharreko neurriak azaltzen dira (aurrekontuak, zerga-arloa, politika sozialak, enplegurako politikak, biziaren iraunkortasuna, bizimodu ona...).

Programa Soziala interpelazio politikoa zen, eta oraindik ere bada. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako administrazioei eskatzeko moduko neurriak dira (Eusko Jaurjaritza, Foru Aldundiak eta Nafarroako Gobernua). Programa Sozialaren eta, horrekin batera, Gutunaren uste sendoa da mobilizazioa ezinbestekoa dela neurri horiek onartu daitezzen. Politika horiek eskatzeko, mobilizazioak egin ziren 2015eko martxoan. Mobilizazio horiek garrantzitsuak izan dira, zenbait eraldaketaren aurkako mobilizazio-dinamika politika alternatiboen aldeko proposamen-mobilizazio bilakatzeko gai izan baikagara.

Ildo beretik, Alternatiben Herria ere nabarmendu beharra dago. 2015eko urrian egin zen Bilbon, eta Gutunaren ekimenez egindako deialdia izan zen, Parisiko Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konferentziari begira Bizi! mugimenduak Iparraldean abian jarritako Alternatibaren nazioarteko dinamika kontuan hartuta. Alternatiben Herria oso arrakastatsua izan zen antolakuntzari eta maila guztietako partaidetzari begira, eta erakutsi zuen sistemaren benetako alternatibak daudela era guztietako esparruetan; esate baterako, elikaduraren burujabetza, sektore energetikoa, finantza etikoak...

Alternatiben Herriaren ostean, errealitate berriek bat egin dute Eskubide Sozialen Gutunaren dinamikarekin. Euren artean, ekonomia sozial eta solidarioarena nabarmentzen da (esate baterako, REAS Ekonomia Alternatibo eta Solidarioako Sareen Sarea edo Koop57 Finantza Zerbitzu Etiko eta Solidarioen Kooperatiba). Sarea ehuntzen eta era guztietako ekimenak lantzen jarraitzen dugu; esate baterako, Merkataritza eta Inbertsioetarako Itun Transatlantikoaren (TTIP, ingelesez) eta azaroaren 5eko Ekonomia eta Merkataritzarako Hitzarmen Integralaren (CETA, ingelesez) aurkako azken mobilizazioak, TTIPren aurkako Kanpainaren lankidetzapean.

Jakin badakigu politikak adierazitako norabidean aldatzeko ezinbestekoa dela gaur egungoa baino askoz handiagoa den botere soziala eratzea. Horretarako, eremu sindikal eta sozial autonomo, zabal eta anitza sakon lantzen jarraitu beharra dago, baina bertako partaideek bete-bete sinetsi eta lan egin behar dute gizartearen goitik beherako eraldaketaren alde: Euskal Herriko borroka sozialak egituratzeko eremu guztietan partekatutako balioak kontuan hartuta. Eremu horri esker, gainera, herrialde-eredu alternatiboa sortu, eta eredu horren aldeko mobilizazio soziala bultzatu ahal izango da.

EH Eskubide Sozialen Kartako  
Koordinadora Nazionala



## *Zabaldi*: elkarlanean eraikitako espazio zabala

*Elkartasunaren Etxea–Casa de la Solidaridad* izenez sortu zen *Zabaldi* gunea, 1997ko udazkenean. Iruñeko Alde Zaharraren erdialdeko soto batean dago, Nabarrieriako iturriaren alboan. Hainbat lokal alternatibo ditu inguruan: *Eguzki Irratia*, *Etixerat*, *Auzoenea*, *Kattalingorri*, *Subeltz*, zenbait *peña*... Auzo borrokalari baten bizitasunaren isla da, eta hortxe errotuta dago proiektua bera.

Sorreran, hiru ideia nagusi hauek zituen ardatz: *gela propioa* izateko premiari erantzutea, erakundeekiko mendekotasun orotatik edo bezerokeria eta jauntxokeria eskuindarrean oinarrituriko gobernuen politikaren mendekotasun orotatik libre aritzeko; independentzia ekonomikoa bermatzea, morrontza ideologikorik ez izateko; eta, hortik abiatuta, bokazio internazionalista nabarmeneko gune solidario bat eratzea, baina gogoan hartuta, betiere, hemen ere badela Hegoalde bat, ahaztu ezinezkoa, eta emantzipazioa eta eraldaketa, ongi ulertuak badira, norberaren etxetik abiatuta lortu behar direla. Bide horri heltzeko prest dauden taldeen arteko sareak ehuntzea da erronka.

*Zabaldi* izenak gune ireki, zabal bati egiten dio erreferentzia. Sarbide egoki eta errazeko gune bati, zeinetan baitute tokia askotariko pertsona, proiektu eta erakundeek. Horrexegatik ditu bi ate, kale mailan: ahalik eta irisgarriena izateko. Kulturarteko espazio bat, askotarikoa eta kolore anitzekoa erakutsi nahi du argazkiak; solidaritate internazionalistak blaituriko eta beteriko gune bat.

Lokala eskuratu eta atontzeko dirua banakoen ekarpen eskuzabalari esker bildu ahal izan zen. Ez zegoen orduan *crowdfunding*ik, baina, gurean tradizioz ger-

tatu izan den bezala, laguntzeko prest zegoen jendea. Itzuli beharrik gabeko diru ekarpenak izan ziren. Eta, ondoren, ohiko kuota sistema erabili da lokala mantentzeko.

Zenbait taldek bat egin zuten hasierako proiektuarekin: *Komite Internazionalistak*, *SOS Arrazakeria*, *Mugarik Gabe*, *Emakume Internazionalistak*, *Bidezko Merkataritza*, *SODEPAZ*, *Aldea*, *ANARASD*, *Eguzki Bideoak*... Talde bakoitzak bere lokala du, eta bere ekitaldiak eta jarduerak antolatzen ditu. *Zabaldin*, ekimen bereziatarako elkartzen gara. Bertan antolatzen dira, esate baterako, erakusketak, zinema pobrea, solidaritate internazionalistaren astea, hitzaldiak, eztabaida eta prestakuntzako eskola feministaren saioak, kontzertuak, askariak, itxialdiak, liburu aurkezpenak...

Apustu argia da *Zabaldi*, zehatz definitua: feminista, internazionalista, arrazakeriaren aurkakoa, kulturartekoa, solidarioa, independentea eta autonomoa. Hala, denborak aurrera egin ahala –erakunde haietako batzuk aldatu edo desagertu egin direnez, edo lekualdatu–, aldatuz joan da espazioa, osarari eta taldeei dagokienez, baina beti eutsi dio irmo proiektuaren jatorrizko helburuari eta joerari. Gainera, beste talde batzuen bilgune ere bada –izatez, proiektuaren parte izan ez arren–, eta beti aurkitzen dute elkarrekin beren ekimenetarako txoko bat. Edonola ere, denboraren joanean, talde bihurtu da *Zabaldi* bera, eta bere jarduera propioak antolatzen ditu.

Bere ibilbide oparoan, hainbat proiekturi eman die babesa. Horietako batzuek denbora gutxi-asko luzea egin dute *Zabaldin*, eta beste batzuk, berriz, bertan gelditu dira: *Dokumentazio zentroak*, esaterako, na-



Irudia: Ekinkliken argazki-artxiboa.

zioarteko gaien eta gai feministen liburu funts oso baliagarria osatu du, gure ekimenetarako biziki lagungarria; *Brigada taldeak* abentura solidarioa jarri du abian uda honetan, bi talde igorri Mexikora eta Greziara; *Eskola* feministak prestakuntza eta eztabaida feministako 18 saio egin ditu; *Elkartasunaren astea*, urtero ikasturteari hasiera eman ohi dion ekimena, 20 urtez antolatu da, eta hainbat hitzaldi, erakusketa, dokumental, liburu eta aldizkari aurkezpen... egin dira aste horren baitan; *Tomate gorria* kontsumo taldea astero etortzen da nekazaritzako produktuen bere saskiekin; *Tienda gratix* saltokiak biltegitxo bat du -arropa, batez ere-, norbaitek dagoeneko erabilitakoa birziklatu eta beste erabiltzaile batzuei eskaintzeko; *Trueke* ekimenak dirurik gabeko trukean murgilduko gaitu ikasturte honetatik aurrera; *TV-Zabaldi* telebistari esker, *streaming* bidez ikus daitezke hitzaldiak, eta haien grabazioak egiten dira, gero gure webgunearen bidez jendeak ikus ditzan... Eta beste hainbat talderi ere ematen die sostengua eta babesa espazio honek: *Papeles denontzat*, *Memoria taldeak*, *Sanfermines 78 gogoan*, *Abiadura handiko trenaren aurka*, *Farrukas*, *Karabana Greziara*, *Gerren aurka*.

Gure jarduna zertan datzan labur-labur azaltzeko, lehenik eta behin, esan beharra dago berdintasunik

gabeko gizarte bidegabe hau, gizarte arraio hau, eraldatzeko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa lantzen ditugula. Era berean, egiturak eratzearen alde lan egiten dugu, bizitza hobetzeren; gaurtik bertatik hasita bizitza hobetzen lagunduko diguten egiturak eratzearen alde, alegia. Solidaritatea konstante eta bizimodu bat da gurean. Jarrera sexistarik ez da onartzen, matxismoak atek itxita ditu gurean, indarkeria matxistaren etengabeko salaketa egiten dugu. Hierarkiarik ez, buruzagirik ez, autoritarismoari ez. Ez dezagun zaborrik kontsumitu. Ilustrazitez, ikas dezagun elkarrekin, elkar gaitzen ikuspegi kritikotik irakurtzera; beste kultura batzuetako gure lagunek hamaika kontu kontatuko dizkigute, eta mundu berriak ezagutu ahal izango ditugu, baita bidaiatuz ere. Gure auzoak bizi ditugu, eta, hortaz, emantzipazioa lantzen duten talde-proiektuetan parte hartzen dugu, baita jaietan ere.

Begoña Zabala González  
*Emakume Internazionalistak* taldeko militantea  
 eta *Zabaldiren* bazkidea, sorreratik



Nortzuk gara • Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa  
 Hemen aurkituko gaituzue • [www.emakumeenmundumartxa.eus](http://www.emakumeenmundumartxa.eus)

## Emakume guztiok aske izan arte: desberdintasunetan oinarritutako artikulazio esperientzia

Emakumeen Mundu Martxa ekintza feministak bil-tzen dituen nazioarteko mugimendua da, eta po-brezia eta emakumeenganako indarkeria sortzen duten kausak errotik desagerrarazteko lan egiten duten emakume-taldeak eta erakundeak elkartzen ditu. 2000. urteaz geroztik, nazioarteko, nazioko eta eskualdeko ekimen ugari egin dira, eta munduko hirurogeita hamar herrialdetik gorako emakumeak mugiarazi dituzte, diskriminazioko eta desberdintasuneko modu guztien aurka borroka egiteko asmoz. Euskal Herrian, Emakumeen Mundu Martxaren Plataformak emakumezkoen eta sindikatuen hainbat erakunde feminista elkartzen ditu; nahiz eta 2000. urtean hasi ziren antolatzen, 2005ean lortu zuen oihartzun handiagoa, Nazioarteko II. Ekintzarekin. 2013. urtetik, eta Nazioarteko IV. Ekintzari begira, berrantolatzekeo prozesua abiarazi dugu, eta talde feminista eta migratutako emakumeen talde berriak sartu dira. Duela bi urtetik, hiru hilabetetik behin elkartzen gara batzarretan, eta, funtzionamendua berrantolatzeaz gain, jarduteko lau esparru definitu ditugu, taldeen aniztasun handira egokitzeko: indarkeria transistematikoak, gorputzak eta sexualitateak, bizitzaren jasangarritasuna, eta sareko lana eta aniztasunaren kudeaketa.

Irekitze prozesu horrek emaitza onak izan ditu. Nazioarteko IV. Ekintzan, karabana feminista Euskal Herri-tik igaro zen, 2015eko irailaren 28tik urriaren 4ra, eta 27 herritan izan zen astebetean. Urte bereko urriaren 17an, 200 emakumetik gora joan ginen

Lisboan egin zen Europako karabana egitasmoaren amaierara. Karabanak lehenago zeuden talde feministak sendotzeko balio izan du, baina, batez ere, aktibatu gabe zeuden lekuetan mugimendu feminista artikulatzeko. Horrela, bada, talde berriak sortu dira.

Jarraian, jatorri, adin, hezkuntza-maila, gizarte estatus, kultura politiko eta ulertzeko eta bizitzeko modu oso aniztetako pertsonak elkartzeko prozesuaren elementu batzuk aurkeztuko ditugu.

Hasteko, "elkarrekin egotea ez dela nahikoa" ohar-tu gara. Hori horrela, desberdintasunen erretorika hautsi, eta gure desberdintasunen zerranda (lesbianak, migratzaileak, prekarioak, transexualak, euskaldunak, etab.) zeharkatu behar dugu, gure artean dauden desberdintasunak eta botere-zko zein pribilegiozko jarrerak azpimarratzeko. Desberdintasun-eko modu ezberdinean jarduten dute gure gorputzetan; izan ere, bizipenak osatzen ditugu, eta, hortaz, batzarretan eta jardueretan parte hartzeko jarrera desberdinak izaten ditugu. Horregatik, batzarrak egiteko lekua, eguna eta ordutegia erabaki, edo denak eroso sentitzen diren hizkuntzan hitz egiteko aukera bermatzen da. Horretarako, itzulpen taldeak antolatu genituen gure artean, eta euskaratik gaztelaniara itzuli ohi zen, baina, zenbait kasutan, migratutako emakumeek ez zuten gaztelania ere ulertzen. Egoera eta esperientzia zehatz horiek gakoak izan dira aniztasuna gauzatzea neketsua

dela jabetzeko, eta, hortaz, beharrezkoa da alde aurretik lana egitea, baita hori bermatzen duten baliabideak eta mekanismoak izatea ere.

Zentzu horretan, funtsezkoa izan da "zubien" egin-kizuna, hain da, taldeen artean elkar ulertzeko bideak irekitzeko eginkizun artikulatzailea izan duten bakarkako eta taldekako emakumeak. Aniztasunak kultura itzultzeko lana dakar, taldeen kultura-kodeak ulergarriak egiteko gai izan dadin. Desberdintasunak itzultzeko lan hori elkarrengana hurbiltzeko politika ere bada, eta "zubiek" komunikatzeko bideak sortzen dituzte, horrelako guneetara gerturatu ezin duten pertsonen eta taldeen presentzia aktiboa izan dezaten.

Taldeen eta itxuraz antagonikoak diren jarreraren arteko hurbilpen hori elkar ezagutzeko aukera izan da, baita gure nortasunen "kutxa" mugitu eta astintzeko, gure automatismoak zalantzan jartzeko eta gure pentsamendu arauemaileak eztabaidatzeko ere. Desberdintasunen boterea sentitzeko eta pentsatzeko gure moduak interpelatzeko eta gure kontzientzia zabaltzeko gaitasuna da. Ezagutzeko eta interpelatzeko ariketa funtsezkoa izan da elkar aitortzeko. Aitortza hitzak berak adierazten du hori; izan ere, aitortzeko, lehenengo ezagutu egin behar da.

Azkenik, artikulazioko prozesu guztietan, afektuek egiturazko papera eskuratu dute. Lotura politikoek

lotura afektiboak ehuntzea dakarte. Ez gara arrazoizko gorputzak soilik, gorputz emozionalak ere baikara. Horregatik, prozesuan jabetu gara "egiten duguna" bezain garrantzitsua dela "nola egiten dugun". Beraz, ezinbesteko erronka da gure arteko kritikarako gune afektiboak sortzea, gure ondoezak adierazteko, huts egiteko eta "hanka sartzeko" aukera izateko, gure artean praktika patriarkalak eta kolonialak antzemateko, errespetuan zintzoak izaten ausartzeko. Eraikitze-prozesu kolektiboan, jardunean ikasiko dugu denok.

Laburbilduz, kontua artikulazioak sortzea da, eta ez dira "denak zapalduta gaude" adierazpenaren edo aurrez finkatutako identitateen batuketaren emaitza, baizik eta "zerbait komuna" eta zabala sortzeko, aldarrikapen ugari lekua izan dezaten, eta, aldi berean, emakumeen errealitate zehatzen ingurukoa. Borroken ugaritasuna barne hartzen duen eta horretara mugatzen ez den artikulazio politikoa da, eta emakume guztiok aske izan arte amaitu gabe eta martxan egongo da.

Itziar Gandarias Goikoetxea  
Mujeres del Mundo Babel elkarteko  
eta Emakumeen Mundu Martxaren  
Euskal Herriko Plataformako militantea



Irudia: Ecuador Etxea-ren argazki-artxiboa.

# begirada konprometituak

zinema  
dokumentalak

Izenburua: Pride

Tokia, urtea: Erresuma Batua, 2014

Zuzendaria: Matthew Warchus

Gidoia: Stephen Beresford

Iraupena: 120 minutu



**Sinopsia.** Komedia dramatikoa, benetako gertaera batean oinarritua. Margaret Thatcher lehen ministro izan zen garaian (1984) Meatzarien Sindikatu Nazionalak (MSN) egindako borroken tesuinguruan kokatuta dago. Garai hartan gay eta lesbianek, alde batetik, eta meatzariek, bestetik, osatutako –garai hartarako ezohiko– aliantzaren berri ematen du filmak (*Lesbians and Gays Supports the Miners*). Gay Harrotasunaren Egunean Londresen egindako manifestazioan, LGTB ekintzaile talde batek meatzarien familiei laguntzeko diru-bilketa egitea erabaki zuen; meatzarien sindikatuak, ordea, ez zuen laguntza hura onartu, eta, hala, bildutako diru guztia Galesko herri meatzari batek jaso zuen, zuzenean. Horrelaxe hasi zen kausa komun baten alde elkartzea erabaki zuten bi talderen abentura.



Izenburua: No estamos solos

Tokia, urtea: Espainiako estatua, 2015

Errealizadorea: Pere Joan Ventura

Ekoizleak: El Gran Wyoming eta Pere Portabella

Iraupena: 88 minutu

**Sinopsia.** Dokumental honetan, murrizketek, pribatizazioek, etxegabetzeek eta demokrazia gabeziak Espainiako estatuko milaka herritarri zer-nolako sumina eragin dieten ikusten da. Hain zuzen ere, sumin horrek bultzatuta, protesta andana antolatu zuten hainbat gizarte-talde eta mugimenduk, eta ahotsa berreskuratu, eta plazak eta kaleak betetzen hasi ziren –modu espontaneoan–, gauzak oinarritik hasita aldatzeko ahaleginean. Herritarren ekintzaitza eta politizazioa dira film honen ardatz nagusiak. <[www.youtube.com/watch?v=iVkJXqg5iA](http://www.youtube.com/watch?v=iVkJXqg5iA)>.



## argitalpenak

**Izenburua:** Construir otra hegemonía del poder

**Egilea:** Isabel Rauber

**Año:** 2016

**Helbide honetan eskura daiteke:** <[www.rebellion.org/noticia.php?id=216471](http://www.rebellion.org/noticia.php?id=216471)>  
<[www.alainet.org/es/articulo/180085](http://www.alainet.org/es/articulo/180085)>

**Sinopsia.** Testu hau argitaratzeko dagoen liburu baten zati bat da. Egileak azaltzen du herri-subjektuak –neoliberalismoaren kontrako borroka sozialik sutsuenen protagonistak– boterearen beste ikuspegi bat eraikitzen ari direla aldi berean: herri-boterea, parte-hartzean oinarritua, komunitarioa, azken batean, “behetik” eratutako boterea. Prozesu iraultzaile horretan, oinarrizkoa da herri-demokraziak indartzea eta herriak ahalduntzea. Hala ere, Rauberren ustez, zibilizazio berria eraikitzean, eztabaida eta kontraesan ugari sortuko dira herriaren aniztasunaren froga diren eragile sozialen artean. Dena dela, haren ustez, kultura arteko deskolonizatorako proposamena ezaugarri nagusia da botere berria eratzeko prozesuetan, betiere, garai bakoitzeko subjektuek dituzten esperientzietan eta erabakietan oinarritzen bada.



**Izenburua:** Fortunas del feminismo. Del capitalismo gestionado por el Estado a la crisis neoliberal

**Egilea:** Nancy Fraser

**Itzultzailea:** Cristina Piña Aldao

**Tokia, urtea:** Quito eta Madrid, 2015

**Argitaratzailea:** Instituto de Altos Estudios Nacionales del Ecuador. Traficantes de Sueños

**Sinopsia.** 80ko hamarkadako feminismoaren ondoren, zeinaren bereizgarria izan baitzen diskurtsoaren eta jarduera politikoaren erradikalizazioa, liburu honetan, mugimenduaren energia utopikoak berreskuratzearen aldeko aldarria egiten du Fraserrek, kapitalismoaren gaur egungo krisi sistemikoari aurre egiteko. Egoera horrek dilema konplexu baten aurrean kokatzen ditu feministak, liburuak oinarri duen analisiaren arabera: ikuspegi liberaletik erantzun, hau da, banakoaren aukera eta merezimenduen araberrako lorpenak oinarri harturik; edo demokrazia erradikalarekin bat egin, eta zalantzan jarri isildutako egiturazko desberdintasun guztiak. Hain zuzen ere, bigarren aukera horretara bildu beharko litzuke feminismoak indar guztiak, berdintasunaren aldeko gainerako beste mugimendu guztiak bat eginik, merkantilizazio prozesu suntsigarrien gaineko kontrol demokratikoa ezartzeko. Funtsezkoa izango da bide horri heltzea, politika eta jarduera neoliberaleri aurre egin nahi bazaie; halaber, berdintasunaren ikuspegia bera eraldatzeko aukera gisa ere ageri da. Berebiziko erronka, inondik ere, pentsamendu feministan mugarririk ezarriko duena.

## erakundeak

Izen kolektiboa: Black Lives Matter (BLM)

Eragin-esparrua: Estatu Batuak

Webgunea: [www.blacklivesmatter.com](http://www.blacklivesmatter.com)

**Borrokatzeko idealak.** 2013an sortu zuten hiru emakume sindikalista beltzek. BLM erakundeak, poliziaren basakeriaren aurka eta hark eragindako hilketen kontra borrokatzeaz gain, AEBetako pertsona beltzak zapaltzen dituzten baldintza ekonomikoei, sozialei eta politikei ere egiten die aurre. Ekintza zuzeneko taktikak bultzatzen ditu, jendea arazoari ekiteko behar bezain deseroso egon dadin, eta ahalduntzea bultzatzen du, protesten bidez.

Erakunde honen manifestu batek hau adierazten du: “[BLM] erakundeak beltzen komunitateetan nagusitzen den nazionalismo estetik harantz jotzen du... Black Lives Matter erakundeak aintzat hartzen ditu gizon eta emakume beltz homosexualen eta transexualen, ahalmen urriko pertsonen, agiririk ez duten edo aurrekari penalak dituzten beltzen, emakumeen eta genero-espektrora osoko beltzen bizitzak. Beltzen askapenerako mugimenduetan bazter utzita egon diren pertsonen egiten die dei. Ekimen honek beltzen askapenerako mugimendua (berr)eraiki nahi du” (Adierazpenaren izenburua: “All #BlackLivesMatter. This is Not a Moment, but a Movement”).



Izen kolektiboa: Sim Romi, emakume ijitoen elkarte

Eragin-esparrua: Euskal Autonomia Erkidegoa

Webgunea: [www.kaledorkayiko.org/romi\\_area\\_de\\_mujer.asp?auf=sb4](http://www.kaledorkayiko.org/romi_area_de_mujer.asp?auf=sb4)

**Borrokatzeko idealak.** Elkarte honek bi helburu hauek ditu: batetik, emakumeak eta ijitoak diren aldetik ahotsa goratzea, genero-berdintasunerako borrokan beste emakume batzuekin elkartzeko, eta, beraz, herritar gisa dagokien espazioa hartzea eta haien kultura emakumeak diren aldetik aintzatestea; bestetik, hezkuntzaren barruko berrazterketa egitea, haien kulturaren dauden patroien matxistekin hausteko. Azken batean, kulturartekotasunaren ariketa praktikoa egin nahi dute, sexua edo kultura dela-eta batere bereizkeriarik egiten ez duen benetako berdintasunerantz jotzeko. Asmo hori lortzeko, ezinbestekoa da jendarteko gehiengoaren eta ijitoen herriaren mentalitatea aldatzea.

Haien ideia iradokitzaile batzuk hautatu ditugu: “Gure aldarrikapenak feminismo dialogikoaren barruan daude, berdintasunari, emakumearen

ereduari, eta emakumeen beharrian eta interesen buruzko elkarrizketan emakume guztiak sartu behar direla adierazten dutelako. [...] erakutsi nahi dugun errealitatean geuk jartzen ditugu mugak, eta azaldu nahi dugu feminismoa ez dela bakarra, kultura guztietan baitago. Oinarri horretatik, lan egiten dugu, hausnartzeko eta parte hartzeko espazioak sortzeko, bizitzan behar diren gaitasun guztiak eskuratzeko eta gure Herrira iristen ari diren aldaketetan merezi dugun tokia izateko dugun ahalmenez haietan ohartzeko, jendartean zeregin aktiboa izateko beldurrik gabe, emakume ijitoak gure Herrian duen benetako papera erakutsiz, eta, bereziki, lzebaren papera onetsiz, geure kulturak agintzen duenez”.

ezinbesteko  
agenda

**Ekitaldia:** La Vía Campesinaren Nazioarteko VII. Biltzarra

**Deialdia:** La Vía Campesina (EHNE Bizkaia, erakunde anfitrioi)ia)

**Lekua eta eguna:** Derio (Euskal Herria), 2017ko uztailaren 15etik 24ra

**Informazio gehiago:** [www.viacampesina.org/es/index.php/nuestras-conferencias-main-menu-28/2698-lanzamiento-internacional-de-la-vii-conferencia-de-la-via-campesina](http://www.viacampesina.org/es/index.php/nuestras-conferencias-main-menu-28/2698-lanzamiento-internacional-de-la-vii-conferencia-de-la-via-campesina)



Nazioarteko VII. Biltzarreko hamar egunetan, La Vía Campesina erakundeko bost kontinenteetako 600 ordezkari baino gehiago elkartuko dira Derioko Seminarioko Hotelean, beraien borrokaren egoera ebaluatzeko eta elikadura negozio bat izan beharrean eskubide bat izan dadin aldarrikatzen jarraitzeko. Ekitaldi honek eztabaidatzeko ardatz hauek ditu:

1. Justizia klimatikoa eta migrazioa
2. Lurra, ura eta lurraldea; eta transnazionalen eta merkataritza askearen aurkako borroka
3. Nekazarien, emakumeen eta gazteen eskubideak
4. Agroekologia eta haziak; eta Erromako prozesua



**Ekitaldia:** Garapenerako Hezkuntzako Nazioarteko II. Biltzarra, Latinoamerikako ikuspegitik, "Bizitzarako lurraldeak eta etikak"

**Deialdia:** Garapenerako Hezkuntzako Zentroa, CED-UNIMINUTO

**Lekua eta eguna:** Bogotá (Kolonbia), 2017ko urriaren 3tik 6ra

**Informazio gehiago:** <http://congreso.ceduniminuto.org>

Erakundeak helburu hauek ditu ekintza honi begira: *"Espazio bat sortzeko aukera ematea, intelektualen, komunitateko pentsalarien, hezitzaileen, aktibisten eta komunitateen arteko hizketaldiak eta trukeak egiteko, betiere, izateko, pentsatzeko, ezagutzeko eta ekiteko dauden modu desberdinei buruz, garapenerako alternatiben esparruan; izan ere, erresistentzia-modu eta gaurkotutako ikuspegi gisa azaltzen dira, lurraldeetan bizitzaren zentzua eta balioa berreskuratzeko"*. Hona hemen Biltzarraren hausnarketaren ardatzak:

1. Erresistentziako lurraldeak eta lurraldetasunak
2. Bizitzarako ekonomiak
3. Ezegonkortasuna eragiten duten hezkuntza-prozesuak: lurraldeak eta kulturak
4. Azaltzen ari diren eta mugakoak diren epistemologiak



matxino artean  
en rebeldía

A l'atzar agraeixo tres dons: haver nascut dona,  
de classe baixa i nació oprimida.

I el tèrbol atzur de ser tres voltes rebel.

Maria-Mercè Marçal, Poema "Divisa": *Cau de llunes*, Barcelona

## I tu, sols tu (en homenaje a Maria-Mercè Marçal)

Seràs aquella que vas voler ser,  
seràs la tres voltes rebel,  
seràs un puny alçat al vent  
i tu, sols tu,  
faràs vibrar cinc continents.

Emancipada de qualsevol dolor,  
vas eixir amb l'alegria de qui no té por,  
de qui sap que el demà,  
de qui sap que el demà serà millor.

Seràs aquella que vas voler ser,  
seràs la tres voltes rebel,  
seràs un puny alçat al vent  
i tu, sols tu,  
faràs vibrar cinc continents.

Alliberada a qualsevol espai,  
no deixaràs que ningú t'ature mai,  
seràs l'estel que guiarà,  
seràs l'estel que guiarà la llibertat.

Seràs aquella que vas voler ser,  
seràs la tres voltes rebel,  
seràs un puny alçat al vent  
i tu, sols tu,  
faràs vibrar cinc continents.

Ets la forta tempesta d'abril,  
un oasi amarg per als teus enemics,  
eres la forta tempesta d'abril,  
el sol que esclata les flors,  
un oasi amarg per als teus enemics,  
l'espurna que brilla a la nit.

Seràs aquella que vas voler ser,  
seràs la tres voltes rebel,  
seràs un puny alçat al vent  
i tu, sols tu,  
faràs vibrar cinc continents.

Música: el Diluvi  
Letra: MJ Doménech

